

LEZO - 18





“LEZO”

18

1998.ko Maiatza

Azalaren egilea: Mikel Susperregi Olaizola

Diseinua eta Fotokonposaketa: Koloreak.
Inprimaketa: Arteder

AURKIBIDEA

Sarrera	5
Historia	
Marc Legasse eta Lezo. Joseba Aurkenerena Barandiaran	6
Lezoandiko Jaunaren hilketa. Lander Zurutuza	13
Kultura	
Lezo Kontxan bigarren baietz! Joxe Juan Ugalde Ordoki	18
Zuberoak bizi nahi du. Ikastola eta Maskarada.	
Joseba Aurkenerena Barandiaran	25
Murixka taldearen arrakasta Donibane Lohizunen. Zabarre	29
Marc Legasseri omenaldia. Agustina Pontesta	31
Gizartea	
Euskal presoen senideon gogoetak. Lezoko Senideak	38
Breve Reseña de la situación de los presos políticos vascos.	
Lezoko Senideak	41
Juveniles Recuerdos ante el derribo de casa pesqueras o cuberías:	
Jesus Garcia de los Mozos. Rafa Bandres	47
Gesto por la paz = Bandres + Euskadiko Ezkerra.	
Mikel Mitxelena	51
No nos moverán. Jose Luis Egia	54
Saiakera	
Lezoko Toponimia (II). Lander Zurutuza	58
Lauburua euskaldunona bakarrik ote?	
Joseba Aurkenerena Barandiaran	65
Ingurugiroa	
Jaizkibelgo suteak. Joxe Juan Ugalde Ordoki	71
1997-4-21 / 1998-4-4: Etengabeko borrokan.	
Lezoko Autobidearen Aurkako Herri Ekimena.	73

Literatura

Jon eta Lorena lezoarren ustegabeko bizikerak. Zabarreko	83
Gure Jaizkibel. Lander Zurutuza	86
Haur eta Gaztetxoen Literatur Lehiaketa 1997	89
"IV. Jon Garbizu Olerki Sariak" 1997	89
"Olerkiak": Ainhoa Cervera Uranga	90
"Oilagorra": Xabier Dorronsoró Amiano	91
"IV. Lope Isastikoa Ipuin Sariak" 1997	92
"Baserritarra eta mutil bihurria". Asier Erkizia Baquero	92
Espaziountziak Jaizkibelen	92
"Neska bat arriskuan". Kristina Flores Puga Literatura	93

Sarrerak

Beste urte bete joan da eta horrekin batera Lezo aldizkariak beste urrats bat eman du. Urrats emankorra aurreko guztiak bezala, irakurleak ikusiko duenez. Aurten ere aurreko urteetako joerari eutsi diogu eta ale bakarra kaleratzearen aldeko apustua egin. Bakarra, ez ordea, kaskarra.

Ikusi besterik ez duzue nondik norako bidaiak eskaintzen duen ale honek.

Denak banan-bana aipatzeak luze joko liguke eta ez gara horretan hasiko. Dena den, aipamen berezia egin nahi genioke Lander Zurutuzaren historia lanari, entretenigarri izateaz gain jakingarri ere badelako garai bateko Lezoko bizimoduaren gora-beherak ezagutzeko. Horren ondoan ezin aipatu gabe utzi Joxe Juan Ugaldek Lezoko arraunari buruz egindako elkarrizketa eta argazki bilduma. Herri hau itsas herria izan dugu sortu zenetik, eta gaur egun izaera hori ukatzen bazaigu ere guk geureari eutsi behar. Aipamen horien ondoan ezin ahantzi euskal preso politikoek, eta horien artean gure herriko hiru seme bizi dutena eta Senideek salatzen dutena. Autobidearen borroka ez da geldirik egon urte bete honetan eta horren berri ere badugu, eta horien ondoan literatura, toponimia, linguistika....

Ez genuke sarreratxo hau itxi behar aldizkariaren azalari aipamenik egin gabe. Mikel Susperregik egindako azal eder honek gerra aurreko Lezoko Euskal Jai bateko argazkia du. Ederra argazkia. Agur irakurle! Ongi etorri! Berrero ere topo egin dugu aldizkari honen aitzakian. ahazteko modukoa. Urte bete-betea joan da borroka honetan eta Herri Ekimenak horren berri damaigu xehe-xehe. Lau lan aipatu baditugu ere ez utzi gainontzekoak irakurri gabe, edo ahantzi orain irakurritakoa. eta ederra azala.

Besterik ez oraingoz, gustoko izango duzuelakoan hurrengora arte. Ez ahaztu, ordea, aldizkari honen orriak zabalik dituzuela zuen lanak argitaratzeko.

Kitto

Lezo Aldizkariaren Erredakzio Batzordea

2HISTORIA

Mark Legasse eta Lezo

Mark Legasse borrokalaria eta idazle anarko-abertzalea 1.997ko martxoaren 21ean hil zen Ziburuko bere etxean, 79 urte zituelarik. Hilabete eskaxa falta zitzaion 80 urte egiteko, baina postrata-minbiziak eraman zuen lehenago gure artetik. Atsedean har beza!

1.- Mark Legasse Etxekalte

Louis Legasse armadore lapurtarraren semea zen. Legassetarrak beti itsasoari begira bizi izanda ziren. Aitona Basusarrikoa zen eta untzi kapitaina. Baina untzi eta guzti lurperatu eta ito egin zen. Hamaika seme-alaba eduki zituen, eta mutil guztiak armadore izan ziren, hauen artean Marken aita izan zen Louis. Parisera abiatu ziren legassetarrak eta han makailuaren kontura izugarri aberastu ziren. Mark eta bere anaiak Parisen sortuak dira, eta laster familiaren negozioetan murgilduko dira. Louis Legasse Pariseko Armadoreen Ganbarako lehendakaria bilakaturik, Pariseko goi mailako burgesian sartu zen bete-betean. Nork esango zuen halako familatik Mark Legasse bezalako euskal abertzalea sortuko zela? Ez, inork ezin zuen holakorik itxaro. Eta pittinka pittinka Mark etxekalte bihurtu zen. Beste anaia txikiago zen Jakes Legasse Marken bidetik abiatua zen, baina Bigarren Mundu Gerran naziek Italian hil egin zuten.

Gazte-gaztetik ibilia zen bai Lapurdin eta bai Gipuzkoan eta Bizkaian barrena, eta abertzaletasuna Koldo Arana-Goirekiko adiskidetasun eta begirunetik edana zuen. Aita hil zenean, Markek zegokion heredentziaren zatia hartu eta Euskal Herrira bizitzera itzuli zitzaigun. Bere anaiak Parisen gelditu ziren frantses bilakaturik.

2.- Bere lehen ekintzak

Nahiz eta Parisen sortua izan, bere abertzaletasuna oso sakona zen. 1.936ko gerran harreman handiak eduki zituen Hegoaldeko abertzaleekin, bere gurasoak Francoren aldekoak izan arren. Lehenagotik ere, 1.938. urte inguruan, aita Lafitteren Aintzina aldizkari euskalzalean kolaboratzen hasia zen. Lotura handiak eduki zituen EAJko sektore independentzialeenekin eta baita JAGI-JAGIrekin ere. 1.940. urtean Mark Legassek bere bizitokia Iparraldean kokatu zuen, Paris alde batera utzita.

1.945ean bere burua aurkeztu zuen orduko hauteskondeetara euskal abertzale gisa, eta urte berean Iparralderako Autonomia Estatu bat aurkeztu zuen Parisen Jean Etxeberri-Aintzarten bitartez. II. Mundu Gerran nazien aurka borrokatu zuen bere anaia Jakesekin batera, baina frantsesa ez zela eta, Arrotz Legioan alistaturik. Tanke alemaniar baten kontrako ekintzan zauriturik suertatu ondoren frantsesek "gerra-gurutzea" eman zioten. Frantziako Konstituzio berrirako erreferenduma zela eta, gurea ez zen herriaren kontuetan ez sartzeko eskatzen zuten txartelak jartzen ari zela eta detenitu eta preso eraman egin zuten. Errepublikaren lurralde bat kentzeko ahalegina leporatu ziotelarik. Baina epaileak "gerra-gurutzea" zuela jakin bezain pronto bere salaketa kendu egin zion eta kaleratu egin zuten.

3.- Legasseren borroka barrokoa

Berak ordaindu zuen bere patrikatik Aintzina aldizkariaren bigarren argitarapena, non Iratzeder, Xarriton, Mixel Labegerie, Filipe Oihanburu, eta beste euskalazale ipartarren artikulua bilduz ideario abertzalea zabaldu zuen. Mark Legassek dirua ipintzeaz gain, luma ipini zuen ironia amini bat gehituz.

Eukeni Goihenetxek ez zuen kolaboratu nahi izan, argitarapena alemaniar nazien aurkakoa zelako, eta berak proposatzen zuen abertzaletasuna filonazia zen. 1.944an HORDAGO aldizkaria sortu eta 1.978ra bitarte argitaratu zuen. Urte hartan izen bereko argitaldaria jarri zuen martxan eta bere eskutik plazaratu zituen berak idatzitako liburu gehienak.

ETA sortu zen ezgeroztik bere alde agertu zen, eta Lapurdin laguntza eskaini zien lehenengo errefuxiatuei. Orduz geroztik harreman sendoak izango ditu erakunde armatuko kideekin. Zurrumurruek diotenez Eva Forestek Ziburuko bere etxean idatzi omen zuen Carrero Blancoren atentatuari buruzko liburu famatua "Operación Ogro" delakoa. Kartzelan zegoela gose grebari ekin zion, eta frantses gobernuak euskal martiri bat ez zuela nahi eta, askatu egin zuen. Gauza berbera egin zuen handik 25 urtetara Baionako Katedralean, une hartako ETAko buruzagi ezagunekin (Perez Revilla, Eustakio Mendizabal, Goikoetxea "Txapela", Jon Etxabe,...) eta Telesforo Monzonekin.



▲ Erdialdean Koldo Arana-Goiri eta alboetan Mark eta Jakes Legasse anaiak. Berarengandik jaso zuten abertzaletasuna eta independentzialetasunaren garra.


ENBATA mugimenduarekin parte hartu zuen, eta aldizkari hontan eta EGIN-en kolaboratu zuen bere artikulu zorrotzak bidaliz heriotzak gure artetik eraman zuen arte. Jose Antonio Agirre lehendakariaren laguna izaki, behin eta berriro leporatu zion gerra galdu baino lehen independentzia ez aldarrikatu izana. Beste behin bidali zion eskutitz bat Hegoaldeko abertzaleek Iparraldeko abertzaletasun zabalkundearen zuten ardura eza salatuz. Agirrekesan omen zion lehenengo aldiz anarkista zela, eta Luis Peña Santiago etnografoa izan zen bere borrokaren barrokotasunaz lehen hitza aipatu zuena.

4.- Mark Legasseren idatziak

Euskaraz ongi ulertzen zuen arren frantsesesa izan zen idazteko aurkeratu zuen hizkuntza, nahiz eta euskarara eta espainierara egin diren itzulpenak ugariak izan. Bere luma, bere dirua eta bizitza osoa ipini zituen bezala, Euskal Herriaren alde jarri zuen, edo hobeto esanda euskal separatismoaren alde. Hau dela eta "Separatismoaren patriarka" deitu egin zaio. Bere liburuetan anarkia, euskal kontrabandismoa eta independentismoaren ideiak nahasi egiten dira. Mundu magikoak indar handia hartzen du bere baitan, eta den-dena piratez, kontrabandistez, zapaldu-tako etnia ezberdinetako borrokalariez, eta gerrileroz betetzen ditu, mundu magikoaren bitartez Euskal Herriak bere independentzia lortzeko dituen eskubideak ozenki eta zabalkiro aldarrikatzeko. Bere ustez KAS hauxe zen: Kontrabandoa, anarkia eta separatismoa.

Alpa ditzagun segidan bere saiakera eta liburuen zenbait izen:

- Separatismoaren liburu gorria.
- Honela mintzo zen Nekatua.
- Gose-grebalari baten ametsak.
- Axularren itzala.
- Euskal separatismoa existentzialismo mota bat da?
- Santxo Azkarraren parabola.
- Gastibeltzaren karabinak.
- Euskararen Ebangelio eta Apokalipsia.
- Infante zendu batendako pabana.
- Anark-herria.
- Ilargizarraren kontrabandistak.
- Iraetaren zortziko arpa eta txalapartaz.




▲ Hauxe da bere libururik famatuena: "Gastibeltzaren Karabinak". Bertan Lezoko kalegarhitzalearen parabola erabiltzen du. Gastibeltza, Gastibeltza euskara eta karabinak!!!

5.- Lezorekiko loturak

Legassek bazuen adar bat bere familian Lezotik zihoakiona. Bere berraitonaren anaia bat Gurutze Santuaren Basilikan kapellaua izan zen, eta Kale Nagusiko Jamot-enea edo Pikandia-enea izenetako etxean bizi zen (gaur Ixkulin elkartearen bertan dago). Hau hiltzean etxea bere iloba zen Gaudioso Zelaiari utzi zion heredentzian. Eta Gaudioso zen, Legassereren amona zen Extanisladaren neba. Extanislada ezkondu egin zen gero Hendaiako alkate eta sendagile zen Kamino Goienetxe doktoarearekin.

Kamino doktoareak (Legassereren aitona) baimena eskatu zion Gaudioso Zelaia kuinatuari eta kontsulta bat ipini zuen Jamot-enean, eta astean bitan, astearteetan eta ostiraletan bertara etortzen zen lan egitera. Batzuetan Mark eta Jakes semeak ekartzen zituen berarekin, eta bere lan egiten zuen bitartean bi haurrak aritzen ziren jostaketan bai Gurutze Santuaren plazan, basilikaren arkupeetan, edo Jamot-eneko lorategian (atzekaldean kokaturik zegoena). Alpaturiko egunetan osaba Gaudiosorekin biltzen ziren, eta honek euskal kantak eta arpa eta txalapartaz jotzen zituen eresiak erakusten zizkien. Bitxia bada ere, txalaparta makilez jo beharrean, gollarez egiten omen zuen. Egun batean Aita Donostik operitu omen zion benetako txalaparta bat, eta bai Markek eta bai bere anaia Jakesek berarekin ikasi omen zuten jotzen.




▲ Mark Legasse borrokalaria eta idazle lapurtarrek ederki jakin zuen latzen errealtatea, irudimena eta nahikaria. Bere hitz eta idatzietan kontrabandoa, ideia libertarioak eta praktika separatista nahasi egiten ziren helburu independente eta guztiz askatua.

Lezon izandako bizikerek izugarri markatu zuten Mark, eta beti sentitu izan du zerbait berezia Lezoz eta bere inguruaz. Bere liburuetan aipamen ugariak egiten ditu Lezoko herriaz eta bertako adibide eta parabola asko erabiltzen ditu. Ikusi LEZO-2/Karlox Barrentsoro/ Lezoko kalegarbitzailearena eta beste zenbait ixtorio/ 30-31 orr.

Beti uko egin die omenaldi*e*i, eta honela ezin izan zaio inoiz eskeni euskaldunon esker ona. Duela bost bat urte saiatu izan ziren omenaldi herrikoi bat eratzten, baina bertan behera utzi behar izan zen, berak jakin bezain pronto hala eskatu zuelako haserre bizian: "Euskal Herriak baditu gudari asko omen-tzekoak eta ez ni" bota zuen orduan. Heriotzak eramanda gauza bera gertatu da, berak agindu bezala, ez baitzaio inolako hiletarik egin. Bere errautsak Orreagan zabaldu ziren, independentziaren oihartzunak bereganatu nahian edo. Baina Lezok bai egin ziola bere omenalditxoa, ezkutua izan bazen ere. 1.990eko apirilaren 27an, arratsaldeko 8etan IRAETA-REN ZORTZIKOA ARPAZ ETA TXALAPARTAZ izenburuko liburua aurkezpena Lezoko Andreone kultur-etxean egin zuten, orduko kultur Batzordeak hala eskaturik. Baina pixkanaka pixkanaka eta bera konturatu gabe, aurkezpena zena omenalditxoa bilakatu zen, loreak eta guzti eman zitzaizkiolarik. Egun hartan Legassez gain Txillardegia, Beltza, Patri Urkizu, Luis Nuñez eta Luis Jimenez de Aberasturi aritu ziren Legasseren idatziez eta izae-raz.

Geroxeago Lezoko presoen aldeko ekitaldi batean hartu zuen parte, eta 1.991ko ekainaren 15 famatu hartan udaletxeko batzararetoan izan zen. Alkatetzaren lapurketa zela eta honela deklaratu zuen EGINeko Lezoko kronikarako urte bereko irailaren 14an; "Lezo lapurtzea Gurutze Santuaren basilika jazz-aretoa bihurtzea bezalakoa da" Bere ustez eta kronika berean esana: "Lezo abertzaletasun garbienaren basilika da" Ezin dugu ahaztu Mark Legasse arrunt trebea zela holako paradoxak eta esanak egiten. Oso famatua izan zen Txomin Iturbe, ETAko buruzagia zena hiltzean, prentsarako esan zuena: "Txomin ez da hil, bizi-rik dago gure artean, Ardanza da existitzen ez duena".



▲ Frantsesek eta espainiarrek behartu gaituzte euskaldunok gure Herrian kontrabandistak izatera. Separatismoa da biderik baharra gure egoera normaltzeko. Hau dena erakutsiko digute liburu honetan Ilargizarreko kontrabandistek.



▲ Anark-Herria, Euskal Herriaren parabola ederra da. Bertan kontrabandoa, anarkia eta separatismoa aldarrikatzeaz gain, gazte inkorformista uhin berriak aztertu egiten ditu betiko ironia eta umore berezia erabiliz.

6.- Lezo eta goardia zibila.

Buka dezagun lan hau Mark Legassek sinaturik, EGINeko lezoar kronikan, 1.991ko irailaren 14an argitaratu zen pasadizo xarmangarria gogora ekarriz: "Kale Nagusiko Jamot-enea izeneko etxean bizi zen nire osaba-aitona Gaudioso Zelaiak, udako gau sargoriotsu batean honako gertaera kontatu zidan. Lezoko Santakruzak ziren eta kaleko giroa pil-pilean jarri zenez gero, herrian zegoen gobernadore zibilaren kontakatilu batek goardia zibilei deitu zien herrira etor zitezten. Gurutze Santuaren plazan sartu zirenean bertan zeuden lezoarrek kristorena eragin zuten, eta kaleko alaitasuna zena goardia zibilen aurkako haserrea bihurtu zen.

Orduan, udaletxe aurreko etxe bateko balkoira 80 urte inguruko gizan bat atera zen. Zenbait urte lehenago Erreteitxikirekin Santa Krutz apaizaren guda-taldean ibilitakoa zen eta karraxika hasi zitzaien: Jaiak bai eta borroka ere bai! Zenbait gauzaki boto nahi izan zizkien plazan zebiltzan goardia zibilei, baina atzetik atera zen ala-

bak ez zion uzten ezer botatzen. Eta eskutik botilak, edalontziak, platerak eta abar kentzen zizkion behin eta berriro. Azkenean aztoratutako aitona, bere nehia ezin betez, zenbait pezeta atera zituen poltsikotik eta goardia zibilen kapelen gainera jaurtiki zituen, "Pezetakoak kanpora, pezetakoak kanpora!!!" ozenki oihukatzen zien bitartean.

Osaba Gaudiosok kontatu zidanez, karlistadetan honela deitzen omen zitzaien Madrilen alde borrokatzen zutenei, ordainduta borroka egiten baitzuten, ez horrela berriz apaizaren mutilak, boluntarioak baitziren denak. Azkenean sardin zaharrek alde egin zuten eta lezoar guztiok goizeko seirak inguruan Gurutze Santuaren basilikara joan ginen salbe bat errezatzera. Urteak igaro dira eta lehengo egunean, udaletxeko baztar-aretoan, alkatea aukeratzean, boto bakar batengatik alkatetza galdu egin zuten

abertzaleek pezetak bota zizkieten zinegotzi sukurtsalista, deskafeinatu edo damutuei. Ondoren, garbitzaile batek bildu egin zituen jaurtikitako txanponak, berrogei edota berrogeita hamarren bat, eta beraiekin zer egin ez zekienez, Kristo Santuaren aurrera eramane zituen, aldare gainean ipini eta otoitz santuari ekin zion: Barkatu Lezoko Kristo Santua, barkatu! Beste hauteskundeetan itzuliko dira gureak herrikoetxera. Amen.”.

Eta zu Mark Joan zinen garai hartan gauean argia ematen zigun kometaren isatsaren atzetik. Baina zuk egindakoek, idatzitakoek, esandakoek, bizitutakoek gure artean iraungo dute, independentziarantz garamatzan bidea argituz eta alaituz. Egun handi-
ra arte Mark!

Joseba Aurkenerena Barandiaran



1.990ko APIRILAK - 27 (OSTIRALA)

arratsaldeko 8etan

MARK LEGASSEren "EL ZORTZIKO DE IRAETA
para ARPA Y TXALAPARTA" liburuaren **AURKEZPENA**.
Lezoko "ANDREONE" Kultur Etxean



El día 27 de Abril, se celebrará en "ANDREONE"
Kultur Etxea, la presentación del libro de Mark Legasse
titulado "EL ZORTZIKO DE IRAETA para ARPA Y TXALA-
PARTA". El acto coloquio comenzará a las 8 de la tarde.

ANTOLATZAILEA: Lezoko Kultur Batzordea

Organizadorea:

EUSKERAZ ETA ERDERAZ IZANGO DA

El acto será en Euskera y Castellano

▲ 1.990ko apirilaren 27an, "iraetaren zortzikoa" liburuaren aurkezpena Andreonen, baita Lezori eskeini ere. Hauxe da orduan kaleratu zen egitaran-liburuxkaren azala.

LEZOANDIKO JAUNAREN HILKETA



▲ San Juan Babiartzalearen parrokia. Alboko atariko jarlekua.

WHunetarik, hunela gaiñez egultetic, sobera hasserretcetic, eta coleratcetic, sortcen dira calte handiac, liscarrac, hitz gaixtoac, iuramentuac, differentciac, hauciac, gaitzerizcoac, heriotceac, eta bere buruen, eta bertceren galtceac, eta egu itecotan ibenteac. "P. de Axular, 1643.

Guillermo Muru eta Lezoandikoa 1623an jaio zen. Haren gurasoak Gaspar Murukoa eskribaua eta Maria Dominguez Ariztiburukoa izan ziren. Aitarene aldeko aitona-amonak, bestalde, Juan Martinez Murukoa, Juandemuru etxekoa, eta Maria Beltran Lezokoa, Lezoandia etxekoa. 1647an sasiko seme bat izan zuen Maria Amezketakoarekin: izen bereko Guillermo Muru eta Lezoandikoa, 1676an Orango presondegian zenduko zena. Alabaina, 1652an Simona Zumarristakoarekin ezkondu zen.

Guillermo, Lezoandiko jauna 1, sortetxearen ondasunei esker bizi zen, hots, bi erroten irabazietatik eta hainbat etxe eta baserriren errentetatik 2. Inolako lanbiderik gabe. 1652an Lezoko kontseiluko kide izendatu zuten, errejidore hain zuzen ere; eta 1655ean amabi edo errejidore nagusi. Urte horretan, ordea, kontseiluko gainerako kargudunek auzitara eraman zuten, Oiartzungo errotari baten morroiak Lezotik zeramatzan bihi zakuak lohi artera bota zituenean. Herritarrak oro Lezoandiko erroten mende jartzea zen bere nahia. Halaber, Marienetik Zubitxorako herri-bidea itxi egin zuen. Eta Zubitxotik Sorotxo zein Tiñelurako gurdibideetan baserriarren joan-etorriak oztopatu zituen. Guzti horren ondorioz, 1656an berak eta Onofre anaia abokatuak hitzarmen bat sinatu zuten, halabeharrez, Lezoko herriarekin eta kontseiluarekin, egoera bere onera ekartzeko. Halere, 1660an berriro gaiztotu ziren Lezoandia eta kontseiluaren arteko harremanak. Bi kargudunen aginduz Bordandia, Juandemuru eta Lezoandia etxeen jarlekua San Juan Bataiatzailearen parrokiatik Gurutze Santuaren plazara jaitsi zen, eta Santakruz eguneko zezenketan hesi gisa erabili. Egun batzuk geroago jarlekua desagertu egin zen. 1661ean, gertakari horren kariaz Guillermok sustatutako auziei aurre egitearren, kontseiluak eta hainbat lezoarrek kobrezko lauhun dukateko mailegu bat hartu zuten; hain zuzen ere, parrokiako Ama Karmengoaren kaperan Juan Nuñez Yerobikoa kapitainak fundatutako kapilautza erditik. 1663an, bestalde, kontseiluko R hauteskundeetan istiluak izan ziren. Guillermori hautagai izatea eragotzi zioten. Guillermo Muru eta Lezoandikoa 1664an zendu zen.

I. LAGUNARTE GAIZTOA

1664ko otsailaren 3an gertatu zen, igande egunez. Guillermo Muru eta Lezoandikoak Lamberto Villet lagun minarekin bazkaldu zuen. Otordua bukatu eta berehala, Pedro Enparangoa azaldu zen, arratsalde hartan aitabitxia izango zela esanez. Bataiora gonbidatu zituen. Hala, hiru adiskideak elkarrekin joan ziren Lezoanditik handik hurbileko parrokiara. Eta Pedrok, hitzartuta zegoen bezala, pontetik atera zuen Juan Alonso Eskorzakoa irundarraren semea.

Bezperak bukatu ondoren, ohiturari jarraituz, aitabitxiak freskagarri bat eskaini zien bataioan izandakoei. Alabaina, tabernara joan ordez Pedro Zuloagakoa arkitekto maisuaren etxean bildu ziren guztiak. Han, intxaurrak jan eta ardoa edan zebiltzala, karta jokoa hasi ziren batzuk. Miguel Agirrekoa eta Francisco Gainzakoa kapitaina, Guillermo eta Pedro Enparangoaren aurka. Lehenengoek pitxer bat ardo galdu zutenean, ordea, Francisco mahaitik altxatu zen, zorra kitatu eta alde egin zuen. Handik aurrera, Esteban Villaviciosakoa kapitainak hartu zuen haren lekua, Miguelekin bikotea osatuz.

La ez zen gonbidaturik geratzen etxean. Batetik, lau jokalaria mahaiaren inguruan. Bestetik, bi ikusle: Lamberto eta bertako nagusia. Noizbait jokoa eten egin zuten. Orduan, Pedro Enparangoa etxeoandreaki kontua ordaintzera jaitsi zen bitartean, Esteban eta Guillermo liskartu egin ziren. Handinahiak eraginda, etsaitasunezko hitz gogorak esan zizkioten elkarri. Tupustean, Guillermok ezpata atera zion Estebani, amonru biziz. Miguelek bakea behar zutela aldarrikatu zuen. Eta Pedro Zuloagakoa, sutan,

Esteban egotzi egin zuen zeuden gelatik. Esteban eskaileretan behera abiatu zen, kaleko bidean. Ondoren, Miguelek ere alde egin zuen etxetik.

II. AZKEN ORENA

Guillermo, Lamberto eta Pedro Enparangoa beste oren laurden batez solasean aritu ziren. Azkenik, ilunabarreko bost eta erdiak aldera, kalera atera eta Gurutze Santuaren basilikara joan ziren otoitz egitera.

Gero, eliz atarian zeudela, garai batean neskame izan zuen Maria Intxaurrendietakoa hurbildu zitzaion Lambertori, etxera laguntzeko asmoz. Pasaiara abiatu aurretik, ordea, flandestarrak mandatu bat hartu zuen Guillermoren eskutik, alegia, bazkalondo flañ Lezoandian moztu zituen mahukak jostekoa. Horren ondorioz, Maria igorri zuen mahuken bila, eta bera, plazatik mugitu ere egin gabe, zain geratu zitzaion, egunean zehar edandako ardoarekin nahikoa hordituta baitzegoen.

Adiskidea agurtu ondoren, Guillermok eta Pedro Enparangoak Lezoandiko bidea hartu zuten, gertutik Mariak jarraitzen ziela. Bazterrak gero eta ilunago zeuden, ia batera argitasunik gabe. Parrokiaren albotik zihoazenean, ustekabean, Esteban Villavicio sakoa azaldu zen mamu bat bailitzan. Ezpata zorrotik atera eta Guillermoni aurre egin zion. Biak, ezpatak airean, bortizki borrokatu ziren. Estebanek ezpatakada bat jaso zuen eskuin aiekan, eta burutik ere odola zerion. Alabaina, lurrera erori baino lehen, ezpatakada beldurgarria eman zion Guillermoni, gorputza alderik alde zeharkatuz. Orduan, Lambertorengana itzuli aurretik, Maria oihuka hasi zen, laguntza eske. Eta Pedro Enparangoak, ezpata eskuan eta kapa beltza gibelean, ihes egin zuen.

Guillermo hilzorian zegoen parrokiaren atari nagusiko harrizko jarlekuan. Arnasestuka ari zela, Palaziotik etxera zihoan bere seme Guillermo inguratu zitzaion. Aitak eskatuta, atzera Palazioraino joan zen lasterka bizian, egoitza bertan zuen bikarioaren bila. Apaizarekin itzuli zenerako lagun-mordoa bildu zen, kargudun bat edo beste tartean. Hala, Rafaela Bazterretzekoak burua eusten ziola, Bernardo Otxoa Errartekoa bikarioak olladura eman zion Guillermoni. Ondoren azken hatsa eman zuen.

III. JUSTIZIATIK IHESI

Esteban, Guillermoren hiltzailea, herritar batzuren laguntzarekin etxeraino iritsi zen. Eta bertan, bikarioa lekuko, zauriak aztertu zizkioten.

Lezoko kargudunek, bizkitartean, hiru lagun jarri zituzten Guillermoren gorpuaren zain-tzan: Bartolome Elizondokoa, Martin Zabalakoa eta Gaspar Rekaldekkoa. Ondoren, Estebanen bila abiatu ziren. Haren etxera heldu zirenerako, ordea, alde egina zen. Hurrengo goizean Baltasar Arrillagakoa kontseiluburua Hondarribian izan zen, Tomas Arsukoa alkateari gertakarien berri ematen. Handik aurrera erregeren justiziak ohiko bideari ekin zion.

Hilketa burutu zuen gauean Esteban Errenteriara joan zen, kaiaren aitzinean kokatutako kaputxinoen komentura. Han egun batzuk egin eta gero, Frantziako erresumara eraman zuten txalupa batean, Hendaiara hain zuzen ere. Bera atxilotzeko asmoz Hondarri biko justiziak argitaratutako ediktu guztiak alferrikakoak izan ziren.

1664ko abenduaren 24an auzi honi zegozkion epaiak eman ziren. Batetik; Miguel Agirrekoa, Pedro Enparangoa, Lamberto Villet eta Pedro Zuloagakoa 4.000 marabediko isun bana ezarri zien, Guillermo eta Estebanen arteko liskarra piztu zenean Lezoko kar gudunei ez ohartarazteagatik. Bestetik, ihes egindako Esteban Villaviciosakoa, hiltzaile izaki, Oran-en bete beharreko hamar urteko presondegi-zigorra ezarri zioten, eta 30.000 marabediko isuna.

1.- 1664an hiru anaia ziren Lezoandia etxearen jabeak: Onofre lizentziatua, Guillermo bera eta Gaspar kapitaina.

2.- Lezoandia etxearen jabetzakoak ziren, besteak beste, Lezoko Bekoerrota, Goikoerrota, Mitxelkonea etxea, Olazar baserria; Hondarribiko Altxakoa, Altxakoandia, Martitxonea; eta Tolosako zenbait etxe.

3.- Miguel Agirrekoa 56 urteko zapatagin maisua zen. Pedro Enparangoak, Bordandiko jaunak, sortetxearen ondasunak gobernatzea beste lanbiderik ez zuen (Errotetako bi errotak, Eiro baserria...). 38 urte zituen. Esteban Villaviciosakoa kapitaina ondasun handien jabe zen (Lezoko hiru etxe, Serorarena eta Perusanzenea barne, Urdalamarta baserria; Hernaniko Sastia eta beste zenbait etxe...). Halaber, berea zuen osaba Juan Nuñez Yerobikoa zenak San Juan Bataiatzailearen parrokiaren eraikiarazitako Ama Karmengoaren kapera. Lamberto Villet flandestarrak 45 urte zituen, eta Bruselan jaioa zen. Azken hamalau urteetan, ordea, Pasaian bizi zen, Juandemuru etxeko alaba batekin ezkondu. Lanbidez jostuna eta arotza zen. Pedro Zuloagakoa arkitekto maisua ajez betetako gizon eria zen, 64 urtekoa. Guztiak, Lamberto izan ezik, lezoarrak ziren.

4.- Bien arteko liskarraren xehetasunak Pedro Enparangoak eman zituen: "...solo lo que oyo hubiesen tenido de palabras los dichos don Estevan de Villabisiola y don Guillermo de Muru fue que el dicho Villabisiola dixo al dicho don Guillermo vuesa merced no tiene lo que yo y que a esto el suso dicho le respondio que tiene mas que yo una capilla en la yglesia y en otras ningunas palabras ni razones que hubiesen tenido ambos no reparo porque este confesante salio de la sala con yntentos de pagarle lo que se le devia a la dueña...". Bestalde, lekukotasun hori irakurrita besterik badirudi ere, aipatutako lagunak euskaraz mintzo ziren, eta euskara zuten beren hizkuntza. Ikus zer zioen Lamberto Villet-ek: "...no oyo ni reparo que los dichos don Guillermo y Villaviciosa ubiessen tenido razones ningunas de enojo ni alboroto alguno mas de que les vio jugar a los quatro y que ablavan en su lengua bazcongada que no la entien-de el declarante".

5.- Guillermo Muru eta Lezoandikoak Miguel Agirrekoa mehatxatu zuen, gehiegi hitz eginez gero leihotik botako zuela esanez.

6.- Bien arteko etsaigoa Guillermoren kargudun garaietatik zetorren. Hona Mariana Arrillagakoa tabernariaren lekukotasuna: "...a oido deçir por publico en el dicho lugar de Lezo que entre si trayan pleitos los dichos don Guillermo y don Estevan de Villabisiola sobre quantas del haver y rentas del dicho lugar ante la justiçia hordinaria de la çiudad de Fuenterravia donde estubo preso el dicho Villabisiola..."

7.- Hurrengo egunean, Hondarribiko justizia bertan izan zenean, Lazaro Oronozkoa eskribauak txosten hau idatzi zuen: "En el dicho lugar yn continenti el dicho señor alcalde por testimonio de mi el escrivano llego a las puertas de la yglesia parrochial de San Juan del dicho lugar y como entramos a man derecha por la puerta prinçipal del lado en un asiento de piedra que esta devajo del arco de la puerta de la dicha yglesia se hallo estava don Guillermo de Muru muerto revosado con su capa los pies crusados y una espada desenvainada en el suelo y su tahali y vayna pendientes del hombro. Y luego haviendo el dicho señor alcalde mandado le pusieron en el suelo y le desabrocharon. Y luego Pedro Ruiz maestre çirujano vezino del Pasaje de la jurisdiccion de San Sebastian reconoçio y miro al dicho don Guillermo las heridas que tenia. Y el dicho maestre haviendole reconoçido y mirado dixo que el dicho don Guillermo tiene una herida quatro dedos mas arriba de la teta yzquierda sobre el guesso estar non dada con instrumento cortante y punsante siendo su figura de alto para vajo y que la tal estocada pasa las cavidades vitales ofendiendo la traque arteria coraçon y plumon y salir a la parte de atras atravessando entre la quarta y quinta costillas mendoças y que murio della segun demuestra por ser herida mortal de nezesidad y lo que declara dixo ser verdad y ser de hedad de treynta y dos años poco mas o menos y firmo con el señor alcalde y en fee dello yo el esscrivano. Thomas de Arsu. Pedro Ruiz. Ante mi Lazaro de Oronoz".

ITURRI NAGUSIA

Hondarribiko Udal Agiritegia: E/7/II/10/2.

LANDER ZURUTUZA

Lezo Kontxan Bigarren Baietz!

Arraunzaletasuna oso erroturik dago Lezon. Orain urte batzuk ere horrelaxe zen; orduan arrazoi gehiagorekin, behar bada. Izan ere, 1953an eta 1954an Lezok bere trainerua zuen eta garai hartan izaten ziren estropada urrietan parte hartzen zuen.

Garai hartakoak gogoratzeko, arraun taldeko kide ziren MARTIN LEKUONAREkin eta JOXE KRUTX SARASOLAREkin hitz egin dugu. IXKULINGO mahai sendoetako baten inguruan, kafe konpletoa aurrean, gustora aritu gara kontu-kontari Martinekin eta Joxe Krutxekin lehengoak eta oraingoak harrotzen.



▲ Lezoko trainerua kontxan. 1954-9-5

- Atzekoz aurrerá hastearren, zuek zein traineruren aldeko zarete gaur egun?

Martin-Joxe Krutx.- Hondarribiko Ama Guadalupekoaren aldekoak dudarik gabe. Beti halaxe izan gara. Oraingo lezoarrak dira Pasai Donibane, Orio edo San Pedoren aldekoak. Lehen, gehienak, Hondarribiaren aldekoak ginen. Beno...baita San Pedro zaleak

batzu-batzuk ere.

• Noiz hasi zineten arraunean Lezon?

M.- Ni 1954ean. Aurreko urtean Erreterian aritu nintzen beste sei lezoarrekin batera. Patroiarekin arazoak izan genituen eta alde egitea erabaki genuen. Izenik ez dut esango, baina, hark tranpak egiten zituen gure kontra. Beizu! apustuak egiten zituen gure aurka, bere traineruaren kontra, eta, estropadan besteen aurretik gindoazenean, balantza egiten zuen propio gure traineruak denbora gal zezan.

• Haserre, beraz, Lezora etortzea erabaki zenuten. Ba al zegoen arraun talderik Lezon?

M.- Urte horretan hasi zen, 1954an. Beste batzuen artean, Tomax eta Manuel Salaberria anaiak jarri zuten martxan taldea. Baina jende gehiago ere bazegoen hor trainerua ateratzea nahi zutenak: Martin Kerejeta, Joxe Intxaurrendieta, Manolo Mekolalde, Antonio Pikabea, Benjamin Askasibar... Horiek izan ziren fundatzaileak, nolabait esateko. Eta taldea... ba... Erreteriatik etorri ginen zazpi lagunok, Lezoko beste gazte batzuek eta Hondarribiko hiruk osatu genuen. Ea denak gogoratzen ditudan! Patroia: Manuel Arrillaga; Erreteriatik etorritako lezoarrak: Manuel eta Tomax Salaberria anaiak, Joxe Manuel Salaberria, Xabin Arin, Benito Martiarena, Luis Garmendia eta ni neu; beste lezoarrak: Tomax Maritxalar, Felix Galarraga, Anakleto Lopetegi, Joxe Mari Manterola, Joakin Urkizu eta Nikolas Garmendia; eta Hondarribikoak: Beñardo Goikoetxea, Bixente Iza eta Manuel Manterola. Herriko besteren bat ere bazegoela



▲ 1955eko taldea. Ezkerretik eskubira eta gaitik behera: Juanito Legorburu, Manuel Manterola, Beñardo Goikoetxea, Manuel Arrillaga, Benito Martiarena, Xabin Arin, Felix Galarraga, Bixente Iza, Joxe Leon Legorburu, Fermin Martiarena, Joxeba Arin, Juanito Trecet, Nicolas Garmendia, Tomas Salaberria, Joxe Krutx Sarasola, Joxe Mari Manterola, Luis Garmendia, Tomas Maritxalar, Anakleto Lopetegi eta Juanito Saizar.



▲ Joxe Krutx Sarasola eta Martin Lekuona.

uste dut baina barka lezadala aipatu ez dudanak.

- Zenbat estropadatan hartu zenuten parte urte hartan, 1954an?

M.- Orduan bakarria izaten zen hemen: Kontxakoa. Eta hara zer gertatu zitzaigun! Joan eta deskalifikatu egin gintuzten. Egia esan, tranpa egin genuen eta Pasai Donibanek eta Zumaiak salatu gintuzten. Guztira zortzi ginen ateratzekoak: Zumaiak, Pasai Donibane, Donostia eta gu, horien artean. Legeak zioen tripulazio osoak herri berekoa izan behar zuela, baina guk Hondarribiko hiru lagun sartu genituen. Izen guztiak lezoarrenak eman genituen, ematen zituzten kamisetak ere lezoarren izenean jaso genituen, baina itsasoan aldaketa egin genuen. Hiru hondarribitarrak txalupa batean zeuden zain, eta itsaso zabalean egin zuten salto gure trainerura. Portu aldera abiatu eta, irten baino lehenxeago, deskalifikatuta geundela esan zuten megafonia bidez. Lastima! Ateratzeko prest, patrioiak estatxa eskuan zuela...deskalifikatuta! Bigarren kalea egokitu zitzaigun. Nahi izanez gero, txapelketatik kanpo parte har genezakeela esan ziguten epaileek. Guk, ordea, ez genuen parte hartu.

- Amorrazioa, ezta?

M.- Ez nolana hiko. Gogoratzen dut lehorrera iritsi ondoren kristonak esan genituela. Sekulako iskanbila izan zen. Guardia Zibilak ere eskuhartu behar izan zuen giroa baretzeko. Egia da guk ez genuela estropadako araudia bete, baina irabazi zuen traineruko arraunlariak ere (kanpotarrak izaki) ez zirela herri berekoak jakin genuen gero.

- Akabo orduan denboraldia.

M.- Ez, ez. Galizian ere izan ginen. Kontxakoa gertatu ondoren, CATEk A Coruñara joateko aukera eman zigun. A Coruñako banderan Gipuzkoako ordezkari gisa parte hartu genuen. Aranjuelo herritarrak egin zituen jestioak gu joan ahal izateko. Gogoratzen dut

Franco ere hantxe zegoela estropada ikusten.

- **Nola geratu zineten sailkapenean?**

M.- Zazpi atera eta seigarren iritsi ginen helmugara. Estropada eguna baino bi egun lehenago irten eta bezperan iritsi ginen, goizeko seieta. Geneukan itxuragatik, jazkera arruntagatik, -bonbatxoak, alpargatak... bakoitzak ahal zuen moduan- ez ziguten hotelean sartzen utzi nahi. Baina azkenean ez zen arazorik izan. Hotelean bazkaldu genuen, arratsaldean entrenatu eta hurrengo egunean estropada.

- **Trainerua nola eraman zenuten?**

M.- Autobus gainean lotuta. Bitxikeria bat ere izan genuen. Tunel batean pasa ezinik geratu ginen traineruak goia jotzen zuelako. Zer egin? Txoferrak gurpilak zertxobait hustu zituen. Airea kenduta, autobusak altuera pittin bat galdu zuen. Horrelaxe pasatu genuen tunela.

- **Kontuak kontu, estropadan azkenaurrekoak. Saririk bai?**

M.- Trofeo txiki bat eta 65na pezeta. Jakin izan bagenu, azkenak geratuko ginatekeen, azkenekoak sekulako trofeoa zuen eta. Hala ere, estropada haren inguruan bada aipatzeko moduko datu bat. Gure trainerua oso astuna zenez, Hondarribikoei eskatu genien beraiena A Coruñara eramateko. Hondarribikoa askoz ere arinagoa zen, gila (quilla) txikiagoa zuen, eta harekin estropada hobea egingo genukeen, zalantzarik



▲ 1953an Errenteria utzi eta Lezoko traineruan hasitako zazpi lezoarrok. Ezkerretik eskubira: Manuel Salaberria, Xabin Arin, Tomas Salaberria, Benito Martiarena, Luis Garmendia, Joxe Manuel Salaberria eta Martin Lekuona

gabe. Ez ziguten, ordea, trainerua utzi.

- Zurrumurruek diote bidaia hartan trofeoa erosi egin zenutela. Ez hori bakarrik. Estropadan postu hobea lortu zenutela esan omen zenuten.

M.- Ez, hori ez da egia. Lezon behin baino gehiagotan entzuten da hori, baina... A Coruñaako estropadan gertatutakoa nik esan dizudana da. Ez dago besterik. Autobusez joan, zazpitik seigarren geratu, trofeo txiki bat irabazi, 65na pezeta jaso eta etxera.

- Eta etxean? Lezon?

M.- Udalak sekulako ongi-etorria egin zigun musika-banda eta guzti.

- Agian zirikatzailea naizela pentsatuko duzu. Baina, non dago trofeoa?

M.- Begira! Galiziatik Lezora iritsi ginenean, Santo Kristora eraman genuen. Gero udal-etxean utzi genuen. Han egon da hainbat urtetan. Orain ez galdetu neri non dagoen. Ez dakit, bota egingo zuten agian.

- Hortxe bukatu ziren, beraz, 1954koak. Eta, hurrengo urtean zer?

Joxe Krutx.- 1955ean Martin ez zegoen tripulazioan, ni bai. Talde ederra ginen orduan ere. Patroia, dudarik gabe, Manuel Arrillaga, Aita Manuel haundiaren semea. Lezoko arraunlariak: Juanito Legorburu, Nikolas Garmendia, Tomax Salaberría, Joxe Mari Manterola, Luis Garmendia, Tomax Maritxalar, Anakleto Lopetegui, Juanito Saizar, Joxeba Arin, Joxe Leon Legorburu, Felix Galarraga, Xabin Arin, Benito Martiarena eta ni neu; Hondarribikoak: Manuel Manterola, Beñardo Goikoetxea, Bixente Iza eta Fermin Martiarena; eta Juanito Trecet Pasai Donibanekoa.

- Urte horretan ere Kontxan izan zen Lezoko trainerua.

J. K.- Bai. Lau traineru izan ginen orduan. Bi igandeko estropada izan zen. Lehenengo igandeko sailkapena: Orio, Lezo, Donostia eta Oiartzun. Bigarren igandeko sailkapena: Orio, Donostia, Lezo eta Oiartzun. Eta batz bestekoa egin ondoren, behin betirako sailkapena: Orio, Lezo, Donostia eta Oiartzun. Lezo bigarrena, beraz. Nik, dena den, ez nuen estropada hartan arraun egiterik izan. Manuel Arrillagak esan zidan bigarren igandean tripulazioan sartzeko aukera izango nuela. Azkenean, ordea, Joxeba jarri zuen ni ateratzekoa nintzen tokian, Joxebak berak hala eskatuta.

- Sari ona izan al zenuten?

J. K.- Bi mila eta seiehun pezeta arraunlari bakoitzarentzat.

- Kontxako hori izan al zen Lezoko traineruaren azken estropada?

J. K.- Bai. Guztira bi urte egin zituen Lezoko traineruak. Batel estropadak ere izaten ziren garai hartan Pasai Donibaneko, San Pedroko eta Lezoko festetan, baina guk ez

genuen parte hartzen talde bezala; kuadrilaka izaten zen hori.

- Halako taldea edukita, zergatik desegin zen?

J. K.- Diru arazoak gehienbat, badakizul! Irabazten genuena baino gehiago gastatzen genuen arraunaren inguruan.

- Babeslerik ba al zenuten?

J. K.- Ipintzako BEAUMONT ZALDITEGIA genuen babesle. Dirulaguntza kamiseta txuri-berdeak erosteko, arraunak konpontzeko,...Horretarako izaten zen. Ez zen gehiagorako iritsiko, seguru asko.

- Ez dugu entrenamentuaz hitz egin.

M.- Dena traineruan egiten genuen. Orduan ez zegoen korrika-saio, gimnasia eta antzekorik. Ilunabarretan elkartzen ginen. Ordubete inguruko arraun-saioa egiten genuen astean sei egunez eta urtean bi edo hiru hilabetez. Orduan Kontxa eta Espainiako txapelketak besterik ez ziren, eta, jakina, ez zen gaur egun bezala.

J. K.- Gaur egun urte guztian entrenatu beharra dago. Lehengoak ez du zerikusirik gaurkoarekin. Orain masajistak, medikuak,... denetik dute. Prestakuntza fisikoa eta, orohar, entrenamentu guztia, zorrotzagoa da gaur.

- Zein zenuten entrena-tzaile?

J. K.- Manuel Arrillaga eta gu geu.

- Zaindu ere, zainduko zineten, ezta?

J. K.- Beti zerbait. Janari alde-tik, badakizul, ahal zen mo-
duan. Lapaza Errenteriako medikuak esaten zuen entre-



▲ Martin Lekuona

namentuaren ondoren libre zela txuleta jan eta porroi ar-doa edatea. Hori egiten ge-

nuen guk, ahal genuen neurrian.

- Garai haiek eta oraingoak alderatzen ari garelarik, materialetan ere alde handia antzemango duzue.

M.- Enbarkazioak ia hiru aldiz astunagoak ziren lehen. Eta arraunak ere astunagoak ziren.

J. K.- Talde bakoltzak bere trainerua zuen, baina Kontxako estropadan CATek jartzen zituen traineruak; denak berdinak. Gurea astuna zen. Ez dut gogoratzen zenbateko pisua zuen baina nik ondo ezagutzen nuen, neronek konpontzen nuen trainerua eta.

- Zein traineru ateratzen ziren garai hartako estropadetan?

M.- Aginaga, Pasai Donibane, Errenteria, Orio, Oiartzun, Lezo... Baita bizkaitarrak ere, bji edo hiru.

- Amaitzeko, zalantza bat argitu nahi nuke. Egia al da Kontxako estropadan kanpoko balizara oso atzeratuta iritsi eta ziaboga hartu beharrean, zuzenean, Lezora etorri zinetela arraunean.

M.- Kontu hori ez da gure garaikoa. Guk behintzat ez dugu horrelakorik egin. Esan, esaten da, baina garai bateko istorioak dira horiek. Gertatu zenik ere zalantzan jarriko nuke nik.

J. K.- Neuk ere behin baino gehiagotan entzuna dut istorio hori. Auskalo noizko kontuak diren!

Honetantxe utzi dugu elkarrizketa. Gehiago ere hitz egingo lukete Martinek eta Joxe Krutxek telebistan pilota partidu interesgarria emango ez balute. Eskuz binakako Euskadiko Txapelketako finala hastear dago, eta pilotariak berotze ariketak egiten hasi orduko utzi dugu elkarrizketa. Kirolzale segitzen dute Martinek eta Joxe Krutxek.

JOXE JUAN UGALDE ORDOKI
Argazkigintza: Aguxtin Lizarazu
Ander Etxebeste

Zuberoak Bizi Nahi Du. Ikastola eta Maskarada

XX. mende bukaera hontan Euskal Herri osoa hil ala biziko borrokan murgildurik dagoenean, euskaldunok ezin dugu geldirik egon, ezin dugu itxaropenetan bizi. Eguneroko lanean murgildu beharra daukagu, aurrera ateratzeko eta XXI. mendean herri bizia, euskalduna eta sobiranoa izateko. Eta lortu, lortu egingo dugu. Atzerapausurik ez dago, eta herrialdez herrialde, lanak borrokak eta erresistentziak aurrera darraite. Herri honek bizi nahi duelakoz, Euskal Herriak aske eta euskalduna izan nahi duelakoz.

Baina hortarako denon lana behar dugu, eguneroko lanari lotu behar gatzaizkio, euskararen alde, euskal kulturaren alde, euskal soberaniaren alde, gero eta hurbilago daukagun etorkizun oparoa behin betikoz hurbil dakigun. Eta eguneroko lanak etorkizuna bermatzen digu. Nonnahi eta noiznahi lelo bera. Zuberoan, beste herrialdeetan bezala, euskal diasporan bezala, eguneroko erronka hortxe dago eguneroko bizi beharrean, eta 1.997. urtean bi atalen inguruan laburbildu zaigu: ikastola eta maskarada.

1.- SOHÛTAKO IKASTOLA.-

Zuberoan bi haur ikastola izan dira, bat Maulen, hiriburuan eta Atharratzen bestea, biak oso egoera txarrean. Hau dela eta ikastolako haurren guraso eta irakasleek beste ikastola baten proiektuari ekin zioten. Proiektu honekin orain dela bost urte hasi ziren, baina bertako agintari politikoen borondate eskasa ikustean, beraiek egiteari ekin behar izan zioten.

Lehen urrats bezala, HABIA ELKARTEA eratu zuten, irakasle, guraso eta euskaltzalez osatu zena. Iparraldeko ikastolen federazioak, SEASKAk alegia, bultzada eta laguntza eskeini zizkien euren egitasmoa lor zezaten. Honela Maule ondoko Sohüta herrian erositako lur eremuan eraikitzen hasi ziren. Lanak 1.996ko abenduaren 14an hasi ziren eta aurtengo uztaillaren 14rako bukatzea espero dute.

Habia Elkartek lan handia egin du dirua lortzeko eta baita langileak musu truk eramateko. Aipatu beharra dago Itxaro Borda irakaslea eta idazle famatua dela Habia Elkartearen zuzendaria. Itxarok prentsarako emandako datuei jarraituz, 33.750.000 pezetako kopurua mailegutuan eskatu behar izan dutela esango dugu. Euskal Herri

osoan zehar zabaldutako laguntza kanpaina bati esker 6.750.000 pezeta lortzea espero dute, eta aurtengo Herri Urratsetik 11.250.000 pezeta. Lezoko Udalak bere dirulaguntza bialdu du Sohütara. Eta Mendekozte Jaien barruan, Lezoko AEK-k antolaturiko II. Zuberoaren Egunean ateratakoa ere bidali egin zaie. Beharko!

Aipaturiko diru kopuru horiekin eta jendearen lan eta izerdiarekin, uztailaren 31rako EPERRA bataiatu duten ikastolako eraikina amaituta egonen da. Heldu den ikasturtean 60 ikasle inguru izanen dira bertan, 2 eta 11 urte bitartekoak (Ama Eskola eta Lehen Maila). Lanak aurrera doaz. Euskaldunok badakigu non dagoen lehentasuna, eta horregatik zazpi euskal herrietatik brigadista asko joan dira eraikitze-lanetan laguntzera. Berriro ere euskaldunok, Iparraldekoek eta Hegoaldekoek HERRI bakarra osatzen dugula erakutsi dugu. Hauxe da bidea. Elkarturik lan egin eta irabazi, politikari patrikaberoei inolako kasurik egin gabe, beraiek gabe oso ondo bizi baikaitezke.

Aurten beraz, euskaldunok badakigu non lagundu behar dugun, edo Sohütako lanetan langile moduan, edota gure xoxak hortarako propio ireki den kontu korrenteetan sartuz. KUTXA (Gipuzkoa-Donostia Kutxa alegia) 21010001180010438877
Informazio gehiago nahi izanez gero:

EPERRA IKASTOLA - HABIA ELKARTEA
12 Evades de France Karrika
64. 130 MAULE (ZUBEROA)
Telefonia (Hegoaldetik deitzeko)
07-335-59.28.33.78



▲ Zuberoak (Xiberoa bertako hizkeraz) bizi nahi du. Eta hor dira ikastola eta mas-
karada nahikari horren seinale.

2.- LARRAIÑEKO MASKARADAK.-

Jakingo duzuen bezala, Zuberoko bizitza kulturala neguan ospatzen den Maskarada eta uda partean jokatzeko diren Pastoralen inguruan babesten da. Beraiek dira zuberotar hatsaren gordelekuak, eta beraien inguruan gauzatzen da urtez urte zuberotar herriaren ekimena. Maskaradak urtarrilean hasten dira eta maiatzaren hasieran edo erdialdean bukatzen dira. Jai solstizialak dira, neguaren ingurukoak, baina ekinozionalak badira ere neurri handi batean udaberriaren etorrerarekin amaitzen baitira. Etengabeko kurpilaren berri ematen digute. Neguaren loaldia eta udaberriaren berpiztea gogora ekartzen dizkiguten ekitaldi jai jentil-paganoak direlarik, nahiz eta gaur, kutsu kristaua nabaria den.



▲ Zuberotar irakasle eta gurasoen zozpi euskal herritatik joandako langile brigadistak gehitu zaizkie ikastola egin, egingo da!

Urtero, dantzari onak dituen herri batek, batzuetan bi edo hiruk ere, bere gain hartzen ditu urteari dagozkion maskaradak. Eta partaideak normalean oso ugariak izaten dira, herri bakoitzak duen biztanleriaren arabera noski. Maskaradetan dantzak errepikatzen dira erritual baten antzera, eta dantzaririk gehienak gazteak izaten dira. Iniziazio ekitaldia bada ere, gazte horientzat nerabe izatetik heldua izatera laguntzen dien ekitaldia baita. Euskara, zuberotar euskalkia da maskaraden eta pastoralen adierazlea. Hau dela eta azken urteetan zubereraren aterbetzat hartuak izan dira.

Gaur zorionez, nahiz eta egoera larria izan, zenbait aurrerapausu eman dira, eta zuberotarrek etorkizunari itxaropenez begiratzen diote. Gazteak badira üskaldünak, euskaltzaleak eta abertzaleak gainera, eta hauek biharko egunaren eraikitzeari ekin diote arlo guztietan. Aurtengo maskaradak Larraiñeko herriak hartu zituen bere gain. Larraiñen maskaradaren sua itzalirik zegoen, 1.922an azkenak izan baitziren, baina aurtan 36 dantzari gaztek berpiztu egin zuten berriro garra, eta honela otsailaren 2tik (aurten atzeratu da Larraiñe elurrez estalirik egon baitzen urtarrilean) maiatzaren 4 arte, larraintar dantzariak Zuberoa osoan, herriz herri ibili dira, zuberotar maskaradaren oihartzun bizia eramanez. Azken emanaldia Herri Urratsen egin zutelarik.

Dantzari hauek dira bestaldez, 1.996ko Mendekozte Jaietan Lezon, gure artean egon zirenak, kantuz eta dantzaz gure bazterrak astintzen. Oroimen polita eraman zuten Lezotik, baita guk beraiengandik gorde duguna ere. Anai-arrebak gara, eta egun hartan senideago sentitu genituen gure buruak. Zuberoa luzerako biziko da zuberotarrek honela nahi dutelako, eta biharko Euskal Herri euskaldun eta independentearen zati eder eta kantaria izanen da.

Joseba Aurkenerena Barandiaran



▲ Hauxe da Beñat Larrandabürü Etxart 15 urteko mutila, aurtengo maskaradetan Zamaltzain izan dena. Lezoko 1.996ko Mendekozte Jaietan bere izan zen ere orduko zamaltzaina.

MURIXKA TALDEAREN ARRAKASTA DONIBANE LOHIZUNEN

Donibane Lohizunen bada oso talde jatorra euskal festak antolatzen dituen: BEGIRALEAK elkarteak. Urteak ematen diote kategorian, ardo onari gertatzen zaion bezala. Aipaturiko elkarteak ekitaldi asko hartzen ditu bere gain: dantza ikastaroak, kantu ikastaroak, mutxikoak Donibaneko plazan igande zehatz batzuetan, Kantu Eguna,... eta abar luze horretan aipatzekoa dugu urtero antolatzen duen UDABERRIA DANTZAN izeneko ikustaldi dotore bezain alaia.

Aurtengoan bi dantza taldek hartu dute parte, Donibane Lohizuneko BEGIRALEAK dantza taldeak eta Lezoko MURIXKA taldeak. Euskal dantzaren inguruko ekitaldi famatu hau 1.997ko apirilaren 18an izan zen, Donibaneko Tenis Estalian. Gaueko 9etan hasi eta ordu bat t'erdia inguruan amaitu zelarik.

Ekitaldiari hasiera emanez, lezoar dantzariak atera ziren lezoar ihauteriko arropaz jantzita, eta beraien artean zeramazkiten Lezoko ihauteriaren pertsonaiarik ospetsuenak: Trapujale, Marinazkane sorgina, zirikoak, eta abar. Suzien argitasunak Tenis Estaliko iluntasuna urratu zuen, eta Trapujalearen kalejira-ren martxak aretoa betetzen zuten ikusleen belarriak alaitu. Izugarri ederra izan zen, baita zirikoek ohiko dantzari ekin ziotenean ere. Tenis Estalia jendez gainezka zegoen, eta lapurtarrek biziki txalotu zituzten hara joandako 30 inguru dantzari lezoarrak.

Ondoren lezoarrek Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako zenbait dantza eskaini zuten, bigarren txanda donibandarrak dantzarietara zuzenduz. Lapurtar dantzari dotore aritu ziren ere,



▲ Murixka taldeko dantzariak izugarriko arrakasta lortu zuten Donibane Lohizunen. Beraien batera Trapujale eraman zuten. (Lander Zurutzaren marrazkia)



▲ Hauxe da Begiraleak dantza talde donibandarraren anagrama. Talde hau izaten da urtero, "Udabériia dantzan" izeneko ikuskizunaren antolatzailea.

eta Lapurdiko ihauteriaren dantzak jokatu zituzten. Hauek bukatu bezain pronto lezoarrek eman zieten segida. Oso aipatzekoa da egun hortan urtehurrena betetzen zuen Gernikako bonbardaketa zela eta, bizkaitar herri martiriari eskeini ziotena. Hunkigarria benetan. Ikusleen bihotza begirunen bete zen. Amaitzean lezoar dantzariak jaso egin zuten ondotxo irabazitako txalo zaparrada.

Ekitaldiari amaiera emateko, bai bi taldeetako dantzariak eta baita ikusleek ere, Lapurdi osoan horren tradizionalak diren mutxikoak dantzatu zituzten. Ikustaldia ezin hobea atera zen, eta aipatzekoa da donibandar eta lezoar dantzarien trebezia eta dotorezia. Arrakasta handia izan zuten. Leporaino beteta zegoen Teniseko areto nagusiak dardar egin zuen dantzariak erakutsitakoarekin. Lapurtarrek ederki ezagutzen zuten Abitxu Soubelet eta Jean Louis Sein "Xanpun"-en zuzendaritzapeko dantzarien estilo ezin hobea, baina lezoar dantzarien indarren aurrean arras hunkiturik gelditu ziren. Lourdes Esnaolak eta Maixabel Orozek zuzentzen duten taldeak jakin izan zuen eskatzen zitzaion ekitaldia ondo betetzen. Alajaina! Nire zorionik beroenak guztientzat, bai donibandar eta bai lezoar dantzariarentzat. Gora Euskal Herriko dantzariak!

Zabarre

Marc LEGASSEri Omenaldia

Marc Légasseren azken liburuaren aurkezpena aitzakiatzat harturik, Lezoko herriak omenaldi bakar eta bakanetako bat eskaini nahi izan dio idazle honi Lezorekin duen loturagatik, amaren familia jatorriz Lezokoa baitzuen.

Omenaldi hasieran, Murixka dantza taldeak ohiko Agurra eskaini zion, lore-sorta ere jaso zuelarik. Ondoren Andreone Kultur etxera abiatu ziren bertan mahai-ingurua ospatzeko. Bertan partaide honoko idazleak izan ziren: Emilio LOPEZ ADAN "Beltza"; Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA "Txillardegi"; Marc LEGASSE bera; Patri URKIZU; Luis NUÑEZ; Luis JIMENEZ DE ABERASTURI eta azkenik, Maite IDIRIN kantaria.

Mahai-ingurua eta solasaldiaren sarrera bera, Joseba AURKENERENA Kultur Batzordeko zinegotziaren gidaritzapean izan zen.

SARRERA

Gaur 1990ko Apirilaren 27a izanik, Lezon aurkezpena egiteko arrazoinak honokook izan dira batipat: lehenik eta behin, Marc erdi lezoarra edota, lezoarra oso-osorik sentitzen delako (arestian aipatu gisa). Bestalde, Kultura Batzorde honek pozez beterik ekin dio egitasmo honi, Marc-ek publikoki beti adierazi izan baitu Lezorekiko begirunea eta beste arrazoinetako bat zera litzateke; Marc-en filosofia jator eta sutsuarekin eta bere istorioetan aipatzen duen mundu magikoarekin bat egiten dugula, geure burua Euskal Herri horren zati edota partaidetzat hartuz. Eta azkenik, berak amesten duen Euskal Herriaren zorientasunaz eta independentziaz sinesten dugulako.


Gure Herriaren independentziaren aldeko etengabeko borroka luze horretan parte hartzeko bide asko daude, **literatura** adib., izan da Marc Légassek jorraturiko bideetako bat.

Bere azken liburu honetan, ARPAZ ETA TXALAPARTAZ lagunduriko Iraetaren zortziko maxinatuen aire itxaropentsua dakarkigu gogora. Iraetaren soinu magikoa, gure Herriaren helburu eta esperantzaren suspertzailerik onena delakoan, zabal ditzagun gure bihotzbelarriak bere mezuaz gainezka daitezen.

Eta Andreoneko aretoa muturreraino bete zuen entzulegoari eskerrak eman ondoren eman zitzaion hasiera solasaldiari. Eta lehenik, Luis NUÑEZ, EGIN egunkariko erredakzio-buru ohiak hartu zuen hitza.

Luis NUÑEZ

Bi akats ikusten dizkiot liburu honi eta horregatik ez nioke gomendatuko inori. Bata, idazlea aski analfabetoa da, frantsesez euskaldun baten azentoz egiten duela; euskaraz, doi-doi eta espainieraz aldiz, frantsesaren azentuaz hitzegiten duela. Orduan, analfabeto edo aski analfabetoa den idazle baten liburua irakurtzea ez da oso logikoa.



Eta bigarren arrazoina edo akatsa zera litzateke; gazteegia gertatzen dela liburua. Normalki, gazteek libreki idazten dutelako eta zahar-ragoek aldiz, dena kalkulatu, neurtua... eta hori heldutasunaren berezitasuntzat jotzen da. Adinarekin denak moteldu egiten garela, nagikeriaz, komoditateaz edo nahi denaz, gero eta guttiago produzitzen dugu eta ez hain libre.

Baina badira hirugarren arlo batean sartzen diren pertsona batzuk, eta adinarekin helduak baino libreago eta arinago jokatzeko dutenak, eta hemen kokatuko nuke Marc Légasse eta honekin batera, Telesforo Monzon bera ere, besteak beste.

Guzti horregatik diot, Marc gazteegia eta martxosoegia dela, bere liburua edonori gomendatzeko.

Baina bada beste puntu baikorrago bat. Gaur egun politikero burgesek ematen diguten Euskal Herriaren aurpegia oso faltsua da, ttikikeriaz betea, aldrebestua, eta Marc aldiz, hori aldatzen saiatzen da, Euskal Herriaren errealitatea, historia, bizitza, berezitasunak,... distantzia historikoaz eta umorez beterik esplikatzen ahalegintzen da.

Honexegatik beraz, **benetan gomendagarria** dela diot. **Irakurterraza eta atsegina. Gau batean irakurtzeko modukoa.**

Ni PNV-koa banintz esango nizuke: "BEHAR ZAITUGU, MARC!" Baina PNV-koa ez naizenez, beste era batera esango dizut: "MARC, JARRAITU BORROKA IDATZIAN!"

Ondoren, Jose Luis **ALVAREZ ENPARANTZA**
"TXILLARDEGI" k hartu zuen hitza.

TXILLARDEGI

Nik ere zerbait aipatu nahi nuke Marc-en ibilbidea ezagutarazteko. Nik Marc duela 30 urte jada ezagutu nuen gartzelatik irten ondoren ihesi joan nintzelarik bestaldera.

Une horretan Euskal Herrian halako krisialdi izugarria zegoen. Ordurako sortua zen **ETA** mogimendua, orduantxe ere azaldu zuen eibartar batek Caracasen **IRRINTZI** izeneko aldizkaria eta aldizkari horren inguruan sortu zen PNVren aurka eta Eusko Jauriaritzaren kontrako talde bat, irtenbiderik gabeko bide bat zela, e..a., e..a., esanez. Eta talde honek "Manifiesto de Caracas" deituriko idatzia kaleratu zuen.

Eta garai askotan bezala orduan ere Marc nahiko bakarrik zegoelarik, Federiko Krutwig etorri zen Alemaniatik, Bilbotik ihesi eta Patxi Miangolarra ere Caracasetik etorri berria zenez, erdi txantxetan edo, "K.L.M." taldea osatu zuten, ez hegazkinena, noski, "**KRUTWIG, LEGASSE, MIANGOLARRA**" baizik.

Eta hauek orduan muntatu zuten Baionan, **VASCONIA** deituriko liburua. Aipatu liburua prestatu zuten egoitzako paretak izugarritzko mapez estali zituzten, non Euskal Herria Angulemaraino, Burgoseraino e.a., allegatzen baitzen, F. Krutwig-en teoriari jarraiki.

Beraz, **VASCONIA** F. Krutwig-ek idatzia izan arren dudarik ez dago pasarte askotan Marc-en eskua nabaria dela eta, Luis Arana Goiriren aportazioak partikulariki.

Bagenekien Luis Arana Goiri PNVtik bota zutela baina ez genekien zergatia eta **VASCONIA**n azaldu ziren dokumentu horiei esker jakin izan genuen, bertan agertzen baitira xehetasun guztiak eta dokumentu horiek Marc-i esker izan genituen. Eta gu orduan enteratu ginen bazegoela oposizio bat PNVren aldetik ere hegoaldean batera ezagutzen ez zena eta Marc-i esker ezagutu ahal izan dugu.

Bestalde, Marc, **SOTA** familiako emazteki batekin ezkondu zenez, PNVa barne-barnetik ezagutzeko parada izan du, horregatik behin eta berriz eskatu izan diot Marc-i, bere oroitzapenak idatzi beharko zituzkeela, izugarri interesgarriak izango liratekeelako zeren eta, Sota familia izan baita PNVren "mezenasa".

Beste datu bat: 1971ean eta Burgoseko Prozesuaren ondorioz gose greba antolatu zen Baionako Katedralean eta gose greba hartara etorri zitzaigun Marc, eta Monzon ere bertan zegoela ikusirik, bapatean esan zuen: -hemen geldituko naiz! eta koltxoi bat eskatu eta horrela egin zuen bere bigarren gose greba. Marc-ek lehenengo gose greba gerla ondoren egina baitzuen, hain zuzen 1945ean gerla bukatu ondoren Autonomi Estatutua aurkeztu zuten eta orduan atxilotu zuten Marc, eta gartzelan zegoela egin zuen aipatu gose greba. Eta bigarren gose greba hartaz beti esaten zuen: **ETA**ko jendearekin gose greba egiteaz oso pozik zegoela, gaztetzea bezala bait-

zen beretzat.

Hori izan zen beraz, lotura garbia euskal mugimenduarekin. Geroxeago ere beste gose greba bat egin zuen Angelun eta elizan geundela 18. egunean (aski ahulduak geundelarik ia denak) Erretorea agertu zen eta Marc agurtzera zutitu zenean edo, zorabiatu eta apaizaren besoetara erori zen; apaiza izutua, urduri, Marc kordea galduta ikusirik eta guztiok altxa ginen beldurtuta. Beraz Marc-ek baditu gartzela eta gose greba



batzuek berekin.

1973-74ean berriz bere etxea errefuxiatu guztion zentroa bilakatu zen. Garai hartan sekulako eztabaidak eta bilerak izaten ziren honen etxean, "Periko Baita-n"; Eva Forest, Ortzi, Ezkerra... eta beste zenbait jende elkartzen zeneko afari haietan. Esan nahi dut beraz, aski ongi ezagutzen dituela arazo guztiak. Eta bukatzeko, berriro diot, nik uste pena handia dela Marc-ek ez idaztea bere **memoriak**, zeren eta oso ongi ezagutu baitzituen Jagi-Jagi-koak, EAJ-koak,... e.a., eta zoritxarrez historia hori ez da batere ezagutzen. Guk ezagutzen dugun historia PNV-k kontatu diguna da eta ez ezker aberzaleen ikuspuntutik, baina dena den, nik uste oraindik Marc-ek egingo duela, liburu hau egin duen bezalaxe.

Eta horretarako nik proposatuko nuke kazetari "bolondres" bat, Marc-ek hitzegiten duen guztia jasotzeko eta hor aterako litzateke izugarrizko dokumentazioa, ETaren fenomeno eta PNVren gaurko egoera esplikatuko ligukeena zeren eta aspalditik baitator eta Marc-ek oso ongi daki guzti hori.

Beraz, galdetzen denean, **Marc Legasse zergatik ez da konprometitu?** Hori ez da egia. Lehenengo eta behin esan behar da Marc, bai jatorriz, familiaz, eta baita SOTA-ren ondorioz, jauntxoan artean egon zitekeela, hau da, Euskal Herriko aberatsen artean sekulako bizimodua eramanez eta sartutako saltsetan sartu eta halere ez da saldu. Hortaz, T. Monzon bezala da, zeren eta hauek bai bazuten arrazoina esateko: "beno, gu gara hemengo aitor-semeak, jauntxoak eta,...." eta halere, beti borroka herrikoia-ekin egon dira eta daude, beraz, hori batetik. Eta bigarrenik, Marc iparraldekoa da, edota, Parisen sortua eta konpara ezinak dira iparraldea eta hegoaldea eta badirudi askoz hobeto konpondu izan dela hegoaldekoekin.

Marc-en beste aipamen bat egiterakoan bere kultur eta literatur ezagutza izango litzateke, zeren eta bere etxean sekulako luburutegi ona baitauka. (Adib., LARRAS-QUETen obra guztia nik bere etxean ezagutu dut edota, Irlandako 1937ko Konstituzio famatua -gaelikoz eta ingelesez idatzia- berak erregalatu zidan aspaldi) beraz, irakurle zorrotza dugu Marc, eta hori guztiek jakin behar dute.

Guzti horregatik esan behar dut, meritu oso handia duela daraman bizimodua eramateko eta hori garantia bat da.

Emilio LOPEZ ADAN "Beltza"

Neretzat oso pozgarria da hona etortzea batetik, Marc-en lagunmin naizelako eta bestalde, Jose Luisek aipatu gisa une askotan hurbiletik ezagutu izan dudalako eta militantea, abertzalea denez merezi duelako omenaldi hau.

Bigarrenik, Jose Luisek aipatu du Marc kultura handikoa dela eta hori egia da, bai literaturaz, bai politikaz,... edota, herri xumeez duen interesaz.

Baita ere azpimarratzekoa da gaur egun euskal abertzalek ematen den ideia, (persona basatiak omen, kulturaz at, mogimendu kulturaletatik desafortatuak eta tripetatik ateratzen zaigunaz bakarrik sinesten dugunak izaki, nonbait), baina kulturak zer ekarri digun, kulturak nola izan behar duen, Marc-en idatzietan eta obretan, argi eta garbi ikus daiteke eta hor dago beste frogak bat, nazionalismoa basatia dela esaten duenari, beste nazionalismo basatiago baten indarra ezkutatu nahi dela adierazteko. Eta azken puntua, Marc-en ohoretan, aktualitate handikoa eta aitortu behar da, ezker aldeko mogimendu abertzaleak iduri dominantea, -ideologi dominantea-, marxismo leninismoa izan dela eta behar bada gaur egun oraindik ere hori dela, baina askotan esan dute orain komunismoa krisian dagoela esaten delarik, ez dela egia, hori ez baita inoiz komunismoa izan, ezta sozialismoa ere, zuen jite autoritarioarengatik. Eta autoritarismo hori kenduta -baita marxismo leninismoan ere- komunismoak zuen balore guztiak aktualitate handiena eta(zati bat falta da)..... nobait konpreni dezagun oraina ez dela zaharkituta gelditzen ari den marxismo zaharrarekin bategitea hil arte azken Numantzia, baizik eta liberalismoaren kantuetan sinistu gabe, demokrazia liberalaren tranpa eta zepoetan erori gabe, berriz hartu komunismoak duen jarrera autoritarioa eta libertarioa Euskal Herrian aurrera eramateko eta ezkerren su ttipi horri eusten

Marc-ek asko egin du eta hori egun publikoki eskertu nahi diot.
Patri URKIZU.

Marc-ek beti aitortu izan dit poz handia sentitzen duela Lezon aurkitu izan dudak bakoitzean. Benetazko maitasuna diolako gure herriari, Lezoko herriari, Lezoko Unibertsitateko herri honi (lehen aipatu gisa, bere leinu zaharretan lezoarrak dituenez), eta etorri izan denean eta elkar topatu dugunean, ideien edota sentimenteren berdintasuna somatu izan dugu elkarrekiko.

Eta hemen esandakoari ez diot ezertxo ere erantsi nahi, baizik eta esandakoak oso ondo esanda daudela eta puntutxo bat bakarrik adierazi nahi nuke, hau da, euskal literaturaren arloan eta euskal letren munduan inork deus gutti egiten zuenean (40. hamarkadako gerla garaian, gudari asko eta asko gartzelan zeuden garaian) euskal literatura bultzatu zuen bakarra berau izan zela, bere diruz eta bere poltsikoz ANTZINA aldizkaria berak argitaratzen zuelako eta oraindik, berrogeitamar urte pasa ondoren, bere lumak hor jarraitzen duela zorrotz-zorrotz idazten, eleberri bat idazten ari baita artikulon zatia den IRAETA ren titulupean.

Eta IRAETA dela-ta, poematxo bat idatzi dut, hona hemen:

IRAETA, IRAETA
arpa eta txalaparta
Irlandako armarritan
arpa zaigu ageri
eta zelterren hizkuntzan
bardo bat kantari.

IRAETA, IRAETA
arpa eta txalaparta.
Euskal Herriko oletan
txalaparta da ari
burdindun hots artean
kanta hau ibiltari.

IRAETA, IRAETA
arpa eta txalaparta.
Iraetako plazetan
zortzikoak dantzari
kartzelako burdinpetan
hamaika eusko gudari.

IRAETA, IRAETA
arpa eta txalaparta.
Andreone zahar honetan
eutsi batasunari
eta kanta orok, goraki
euskal askatasunari!



Maite IDIRIN, kantaria

Nik ere zertxobait esan nahi nioke; "**Gastibeltzaren karabinak**" deituriko eleberrian bada klabezin zahar bat edo antzekoa eta nahiz eta nik orain ez dudan horrelakorik eta musika munduan ari naizenez, Nafarroako kantu zahar bat eskainiko diot.

"Haritz adarrean belatxinga dantzan,..."

AZKEN OHARRAK

Azkenik, Luis JIMENEZ DE ABERASTURI idazleak galdeketa bat luzatu zion Marc-i, baina erdaraz izateaz gain oso ulergaitza denez, bertan behera utzi behar izan dut, tamalez. Agian, beste norbaitek pazientzia eta imajinazio handiagoz transkriba lezakeenaren esku utziko dut.

Mahai-ingurua hitzez-hitz ematen ahalegindu naiz eta zatiren bat faltan somatu baduzu grabazioa egiterakoan erabilitako tresneria desegokiaren erruz izan da eta inola ere ez hizlariaren gabezia. Barka nazate eta zuk barka nazazu, irakurle!

Baina Marc bere OROIMENAK idatzi gabe zendu zen iaz Martxoak 21ean eta gure artetik joan zeneko urtehurrena betetzen den egunotan, bihoakio gure agurra bihoztez eskainitako omenaldia oroitzu,

Agustina PONTESTA

SENIDEON GOGOETAK

Gogora ditzagun Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko dinamikan sartu ginen ezkeroztik -bi urte pasatxo- gaur egungo egoerara iristeko eman diren pausokak.

1.- Borrokaldi honen protagonistekin hasiko ginateteke, hau da, presoekin, beraiek izan baitziren aldarrikapen honi hasiera eman ziotenak, etengabeko gose grebak eginez, ziegetatik atera gabe denbora luzez egonez (txapeoak), eta beste hainbat protestaldi eginez. Eskaera hau zen:

- a) Euskal presoak Euskal Herrian egotea.
- b) Zigorren 3/4ak bete dituztenentzako baldintzapeko askatasuna.
- c) Gaixotasun larria duten presoak aske uztea.

Protestaldi hauek ondorioak ekarri dizkiete euskal preso politikoei eta batzuk egun, orduko parteen aplikazioaz zigor gogorra jasaten ari dira, hala nola, isolamendu luzeak, telefono deiak egiteko debekua, patioko denboraren kentzea edo murriztea, bisitak galaraztea edo hauen ordutegiak aldatzea. Herriko Jabi Garmendia, Kroket-i egin zioten bezala, larunbata goizetik igande arratsaldera pasa.

2- Baina gizartea berehala ohartu zen berak izan behar zuela aldarrikapen hauen alde borrokatu behar zuena eta hamaika ekimen burutu dira honen alde; herri ekimen ugari, presoan aldeko plataformak, eta adibide nagusia izan den Artzai Oneko txandakako gose greba, bertatik gizarte arlo guzietako jendea pasa delarik.

Gizarte erakunde ezberdinek bat egin dute eskaera honekin, sindikatuek, kultur elkar- teek, guraso elkar- teek, eskolek eta ikastolek, eta abar.

Azken adibidea lbaetako plataforma dugu, gose greba baten ondoren sortutakoa eta eskaera hauen alde buru-belarri lanean diharduena.

3- Instituzio mailan ere 100 udal baino gehiago azaldu ziren eskakizun hauen alde udal batzarretan onartu eta gero. Hauen artean Lezoko Udala dugu erreferentziarik hurbi- lona, eta udalekin bat eginez, Lezoko herriak ere erakutsi zuen iazko maiatzean, bat egiten zuela plenoan onartutakoekin.

Gasteizko legebiltzarrean herri ordezkariaren gehiengoak onartu zuen euskal presoak Euskal Herrian egon behar zutela. Eta orain salaketak Estrasburg-erako bidea hartu du PNV, HB, EA eta IUk Giza Eskubideen Batzordean baietza eman ondoren.

4- Bi urte hauetan lorpen batzuk ere egin dira, eta ezin ditugu ahaztu, gaixotasun larria zuten presoek askatasuna herriaren presioarengatik izan dela, presiorik ez balitz izan, ziur gaude oraindik preso egongo zirela Jon Iturriaga, Inaxio Mendiburu, Fran Franco, Pilar Ferreiro, Axun Sierra, Xabier Alkain, Kitti Arrizabalaga eta abarrak. Hemen dugu adibide garbia gizartearen presioak Gobernuarengan zenbat eragin dezakeen ikusteko.



LEZOARROK ERE ETENGABE SALATZEN DUGU PRESOEN EGOERA

5- Hau dena egin arren, ordea, Espainiako eta Frantziako gobernuen itxikeriaren aurrean aurkitzen gara. Ez diote euskal gizartearen gehiengoaren eskaerari kasurik egiten eta presoari frena jartzeko preso batzuk kartzelaz aldatzen dituzte prentsan hurbilketa selektibo gisa aurkeztuz. Baina azken finean traslado arruntak izan ziren, euskal preso politikoek egunero jasan behar izaten dituztenetakoak, oraingoan talde bat izan dela eta bizpahiru Euskal Herrira ekarri dituztela, alde bakarra izanik. Trasladatutako bat Emiliano Viana "Tabikes" herritarra da eta hau dugu Mayor Orejak hurbilketa deitutakoaren adibide garbia, alegia, Ceutako espetxetik, Cadizeko Puerto de Santa Maríako espetxera eramatea. Zer nolako hurbilketa! 1.200km eta itsasontzia egitetik, 1.120km egitera.

Gainera espetxeetako egoera gogortzen joan da; eskubideen urratzeak, erasoak, bizi baldintza exkakak eta senideen kontrako erasoak ere gehitu egin dira azkenaldian.

6- Hala ere gure ustez, orain gauden momentua ezinhobea da honi guziari irtenbide ona emateko. Zergatik diogun hau? Bada, duela gutxi ETAk kartzeletako frentean suetena aldarrikatu zuelako eta gobemuak itxikeria honekin jarraitzeko aitzakiarik ez duela. Dena den, hau gerta dadin gizartearen inplikazioa behar da. Denon eskuetan dago egoera honek irtenbide on bat izan dezan baina horretarako ozenki eta batera presionatu behar dugu gobernuak behingoz presoen eskubideak errespetatu ditzan. Azken finean, legea bete dezala, besterik ez. Horrela gertatzen ez bada sufrimenduak segituko du, edo areagotu liteke, eta orduan damutzeak ez du balioko.



Hamaka agerraldi, Milaka lagun, borroka honek denon beharra du.

Senideak gure aldetik nekatuta sentitzen ditugu gure buruak, inon diren ate guziak jo ditugu honez gero eta gure eskuetan zegoen guzia egin eta gero inpotentzia handia sentitzen dugu. Beraz, dei egin nahi diogu gizarteari, guk Lezokoari bereziki, gai honetan, sufrimendu honen aurrean, protagonismo handiagoa har dezan legez kanpoko espetxe politika hau aldatzeko.

Bukatzeko, txalotu nahi genuke; batetik, herriko gazteak egiten ari diren lana, barraualdi bat egiteko asmoa ere badutelarik, eta bestetik, gai honetan elkarrekin hasi duten elkarlana.

Bidea hau delakoan, gainerako herritarrei ere bide bera eredu har dezatela eskatzea besterik ez zaigu geratzen.

LEGEZKOA DELAKO, ETA EZ PRIBILEGIOA,
EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRAI


LEZOKO SENIDEAK

Breve Reseña de la Situación de los Presos Políticos Vascos

Son ya muchos los años de lucha que llevamos los familiares y amigos de presos. Muchos años durante los cuales la vulneración de los más elementales derechos humanos ha sido una constante en nuestras vidas. Hemos sido testigos directos y víctimas de todo tipo de atropellos. La siguiente información no es más que una breve reseña de algunos de estos atropellos. Esperamos que os sirva como ejemplo de lo que llevamos viviendo todos estos años y con ello os unáis a esta lucha a la que cada día se une más gente y más colectivos sociales.

Y es que la situación que vivimos lo requiere, cada día que pasa la situación es más trágica si cabe. No vale el silencio, tampoco valen las posturas inmovilistas. Hemos de movernos todos por conseguir que se cumpla la legalidad con los presos políticos vascos. El PP ha de entender que no puede seguir generando tanto sufrimiento a cambio de una supuesta rentabilidad electoral.

EN EUSKAL HERRIA	52 9	26 %	Entre 600-900 Km	113	20,14 %
Basauri	17		Alacant	8	
Iruñea	7		Albacete	4	
Langraitz	10		Badajoz	8	
Martutene	18		Bonxe	5	
			Cáceres I	6	
A "300" Km	61	10,87 %	Cáceres II	3	
			Cartagena	4	
Burgos	10		Córdoba	10	
Daroca	7		Cuenca	4	
Dueso	8		Herrera	23	
Huesca	2		Eivissa	1	
Logroño	5		Jaen II	8	
Santander	2		A Corunha	2	
Soria	2		Monterroso	5	
Teruel	2		Murcia	12	
Villabona	14		Ourense	4	
Zaragoza	4		Osny	3	
Gradignan	2		Bois d'Arcy	3	
Lannemezan	3				
			Entre 900-1200 Km	127	22,06%
Entre 300-600 Km	179	31,9 %	Almeria	13	
Alcalá Gaztes	12		Granada	2	
Alcalá Meco	30		Huelva II	5	
Alcazar de San Juan	6		Jerez	2	
Avila-II	5		Málaga	11	
Carabanchel	29		Mallorca	5	
Castelló	8		Puerto I	13	
Dueñas	1		Puerto II	16	
León	1		Bapaurne	1	
Navalcarnero	5		Fleury	23	
Ocaña-I	10		Fresnes	18	
Ocana-II	10		La Sante	16	
Segovia	3		Nanterre	2	
Soto del Real	15				
Topas	11		Entre 1200-1500 Km	13	2,31%
Valdemoro	8		Algeciras	3	
Valencia III	12		Ceuta	5	
Valladolid	9		Melilla	3	
Saint Martin de Re	1		Clairvaux	2	
Saint Maur	1				
Uzerche	2		A 2600 Km	12	2,13%
			Salto	6	
			Tenerife	6	



1. ACOSOS

Familiares de Badajoz denuncian seguimiento por parte de policías secretas.

Familiares que viajan semanalmente a Badajoz han denunciado el constante acoso que sufren por parte de policías secretas. Las compañeras de los presos Josu Jimenez y Mario Zapata notaron actitudes sospechosas contra ellas el 7 y 8 de febrero.

El 7 de febrero mientras la compañera de Mario hacía el vis a vis, la compañera de Josu fue a la ciudad a dar una vuelta. En todo momento tuvo un coche blanco detrás suyo, que salió de la carcel.

Por la tarde, al finalizar las dos las visitas, fueron a Mérida y a cada movimiento que hacían, tenían detrás a dos coches y cuatro hombres. Al visitar la casa de unos amigos, un coche se posicionó en la entrada de la calle y otro en la salida, controntrándolo todo. Al salir de un bar, el policía que estaba allí (vestido con el uniforme de Policía Nacional), gritó por el walk-man "que se van, que se van", hasta que aparecieron sus compañeros.

Libertad Condicional

El artículo 90 de la Constitución española recoge que todos los presos que hayan cumplido las tres cuartas partes de su condena deben acceder a la libertad condicional. Hoy en día el Estado español no cumple este artículo y 136 presos políticos vascos se encuentran secuestrados en prisiones españolas.

Enfermedades Graves

Debido a las enfermedades que padecen, seis presos políticos vascos necesitan que se les traslade urgentemente a Euskal Herría para que sean tratados adecuadamente. Las enfermedades, leves en un principio, están convirtiéndose en crónicas. Especialistas de hospitales de Gipuzkoa y Bizkaia están dispuestos a llevar a cabo el tratamiento de estos presos. Lo único que falta es el traslado. Para ejemplo un caso:

**Txabi Etxebarria Gonzalez:
(vecino de Bilbo y encarcelado en A Coruña)**

En 1993 le diagnosticaron una lumbociática y sus médicos solicitaron que le realizaran una resonancia magnética, para conocer si tenía alguna hernia. No le llevaron al hospital hasta 1996 y en las pruebas, le encontraron protusiones discales (tenía fuera de lugar los discos entre las vértebras y le pinchaban los nervios). Estos pinchazos le producen fuertes dolores y dificultades al andar. En invierno, con el frío, suele estar largo tiempo sin poder levantarse de la cama. La cárcel de La Coruña es húmeda y perjudica a su salud. Este mes de julio ha sufrido dos recaídas e incluso ha sido hospitaliado.

Desde 1993, ha pedido dos veces la visita de un traumatólogo fuera de la cárcel, y las dos veces se lo han negado. En septiembre de 1996 pidió que le trasladaran a la cárcel de Basauri (Bizkaia), pero le han negado la petición.

VULNERACION DE DERECHOS

La Ertzaintza impide una visita médica de una presa en Langraitz

El 5 de febrero, a la presa vasca Txotxe Andueza le negaron la visita médica en Langraitz, debido a la actuación de la Ertzaintza.

La presa tenía concedida una cita para realizar una ecografía hepática en rayos X. Cinco ertzainas custodiaron a la presa a la visita médica. Al llegar a la sala de rayos X, una agente entro con la presa vasca. La presa constató que mientras la agente estuviera presente se negaba a hacerse la prueba. Los médicos y enfermeras contestaron que aquello no era su competencia y no podían hacer nada. Viendo que la ertzaina no tenía intención de salir, la visita quedó suspendida.

Le prohíben hablar con su hermano por teléfono a un preso en Topas

Al preso Fermin Urdiain, recluso en Topas le han prohibido hablar con su hermano Iñaki, encarcelado en Puerto. El 23, de enero los dos presos tenían permiso para hablar por teléfono, pero aduciendo problemas técnicos, no pudieron hablar. Al día siguiente, arreglados los problemas técnicos, Iñaki y Fermin se disponían a hablar por teléfono, cuando el Subdirector de Seguridad de Topas le anunció a Fermin que la llamada quedaba suspendida. El 30 de enero, Fermin recibió una orden que prohibía todas las llamadas telefónicas con su hermano.

AGRESIONES

Funcionarios agreden e insultan a un preso en Valdemoro

Teniendo en cuenta que en Valdemoro estaban vaciando las celdas de los presos sociales, el 14 de febrero los presos vascos del módulo 5 pidieron a un funcionario que les pusieran de uno en uno en las celdas. El funcionario les contestó que hablaran con el turno de tarde. Los presos Jorge Gonzalez y Aitor Fresnedo se dirigieron al funcionario haciéndole la petición y éste, les dijo que no podía hacer nada. Tras ello, al salir al patio, el funcionario sujetó la puerta al pasar Aitor y dándose la vuelta, golpeó a Jorge en la cara, mientras le insultaba, llamándole "hijo de puta", "asesino" y "te voy a matar".

Tras ello, los otros presos vascos bajaron al patio y comenzaron a romper los cristales del módulo, respondiendo a la agresión. Los funcionarios llevaron a los cinco presos a celdas de aislamiento. Al día siguiente, al conocer los restantes presos vascos lo ocurrido, comenzaron una huelga de hambre. También realizan plante a los recuentos diarios y ponen pancartas con el lema "ninguna agresion sin respuesta".

CONDICIONES DE VIDA

Detectado un foco de tuberculosis en la carcel de Tenerife II

Según han informado los presos reclusos en Tenerife-II, se ha detectado un foco de tuberculosis en esta cárcel. El foco es importante y ya se ha extendido en varios módulos. A pesar de que los funcionarios le han querido quitar importancia, ya han comenzado a aislar a varios presos.

4 Presos en celdas de castigo

El pasado día 17 de febrero, metieron a los presos políticos Carlos Almorza, Ernest Arranbide, Manex Erdozaintzi y Fermin Sanchez en las celdas de castigo, en la prisión de Fleury Merogis. El día 17 los funcionarios quisieron cambiar de celda, a Fermin. Éste se negó y protestó. Le llevaron a la celda de castigo. El resto de los presos de la división, cuando se enteraron del hecho, también protestaron y les llevaron a las celdas de castigo.

ACCIDENTES

Dos presos sin visita, tras el accidente de unos amigos

El 14 febrero, tres amigos que iban a visitar a tres presos a Soto del Real y Alcalá Meco sufrieron un accidente de tráfico en Madrid, cuando faltaban 40 kilómetros para llegar a la cárcel. A consecuencia del accidente, perdieron las visitas que tenían con Iñaki Rego y Eugenio Etxebeste.

El accidente sucedió a las 06:45 de la mañana, cuando el coche se salió de la calzada y cayó a un pequeño barranco. El coche quedó completamente destrozado. Los amigos no sufrieron heridas, pero sufren dolores en todo el cuerpo.

LUCHA EN LAS CARCELES

Los presos de Ceuta comienzan un chapeo, denunciando que un preso está solo en el módulo

Desde el 1 de febrero, los cinco presos vascos encarcelados en Ceuta se encuentran chapeados en sus celdas, ya que uno de ellos está solo en el módulo.

Según recoge un auto del Juez de Vigilancia Penitenciaria, los presos tienen derecho de estar de dos en dos en los módulos. Pero tras los traslados realizados en diciembre por el Ministerio de Interior, el preso Estanis Etxaburu se ha quedado solo en el módulo. Los presos han pedido que le pongan a Etxaburu con ellos, pero no han accedido.

Iñaki de Juana comienza una huelga de hambre indefinida, denunciando las condiciones de vida

El 29 de enero, el preso Iñaki de Juana comenzó una huelga de hambre indefinida, denunciando las condiciones de vida que padece en la cárcel de Melilla. El preso exige que se le dé fin al aislamiento que sufre y que las comunicaciones con los abogados no sean intervenidas.

JUVENILES RECUERDOS ANTE EL DERRIBO DE CASA PESQUERAS O CUBERIAS

Durante los IHAUTERIAK-97, que fueron, del jueves 6 al martes 11 de febrero pasado, acogieron en la sala de Exposiciones Municipal de la Alhondiga en la Plaza del Santo Cristo de Lezo, una interesante exposición de pintura de Jesús García de los Mozos, de 72 años, concretamente estuvo abierta al público los días 7, 8 y 9 y el 15 y 16, sorprendiendo a los lezotarras y a los que nos acercamos a verla, compuesta de 25 obras al óleo y algunas ceras de paisajes de nuestro entorno, figuras y bodegones originalísimos, y hablando con él durante esos días y otros posteriores, nos cautivo en su amena conversación con sus sentimientos humanos, con las vivencias de un Lezo, en su entrada, especialmente, muy distinto a la actual y porque su pintura nos gustó...



JESUS GARCIA DE LOS MOZOS
Pintor Autodidacta, hoy jubilado,
vivo 19 años en ellas

¿Quién es JESUS GARCIA DE LOS MOZOS...?

Jesús, nació en Zumarraga, el 9 de marzo de 1.924, su padre ferroviario:era natural de Frias(Burgos) y la madre, Liria, de Bilbao. Jesús es el hijo mayor de dicho matrimonio. Los ferroviarios, en aquellos tiempos al menos, solian tener destinos por ascensos o vacantes..., estando el padre destinado en Zumarraga conoció a Liria, se casaron y en Zumarraga nació Jesús, después pasaron destinado el padre: por Beasain donde nació el segundo hijo,Lorenzo, después a Alcanadre (Rioja) donde nació la tercera y última hija,Pepita y de Alcanadre (Rioja) vino destinado de "guardagujas" a la estación del NORTE de Lezo-Rentería, era el año 1.931, en el mes de mayo... instalándose a vivir la familia en la Casa Pesqueras o Cuberías que pertenecían a la empresa de reparación de vagones-cubas de ROUSTAN Y LARRAÑAGA

recientemente desaparecidas, al menos las ruinas que de ellas quedaban hace varios meses, a finales de 1.996, casas que a pesar de estar materialmente metidas en Lezo,pertenecían al municipio de Rentería... pero se relacionaban y consideraban más "universi-

tarios" que "galleteros"...

Jesús acudió entonces, con sus 7 años, a las Escuelas de Viteri de Rentería con el profesor don Domingo, más conocido por "El Gali" hasta el verano de 1.936 en que por la guerra la familia, como muchas otras, evacuaron, esta familia "salió" hasta Baracaldo (Vizcaya) y de allí a Los Corrales de Buelna (Santander), el padre fué detenido en el mismo Santander y la familia, la madre con los tres hijos, fué llevada por los servicios de Seguridad de la Republica hasta Ribadesella (Asturias) donde embarcaron en el carguero "Mar Via" que les llevó a Francia, al puerto de Saint Nataire, en la zona de Bretaña y desde allí llevados al Departamento de Jura en la frontera con Suiza donde permanecieron hasta que finalizó la "guerra española" y reclamados por el padre, que había sido puesto ya en libertad, regresaron a Lezo, a la casa Pesquera o Cuberías en mayo de 1.939.

Jesús, ya sin haber vuelto a pisar la escuela, el 10 de Enero de 1.940 entra a trabajar en Litografía UREZBEA de Rentería, situada en la esquina de las calles Viteri y Segundo Izpizua (actualmente el Banco Guipuzcoano) donde trabajó hasta su jubilación, que fué estando trasladada la citada Litografía a la Calle Maria de Lezo edificio de La Esmaltería en 1.965, hoy convertido en viviendas, tras 46 años trabajando en dicha Litografía, se jubiló en 1.985 con 61 años, al cerrarse la empresa...

Jesús se casó el 3 de agosto de 1.950 con Ignacia Larrañaga Iza de Azcoitia y pasaron a vivir a Rentería, a la calle Miguel de Zabaleta, han tenido siete hijos (5 chicos, dos de ellos mellizos, y dos chicas) y actualmente tienen de ellos nueve nietos (cinco chicas y cuatro chicos)...

Bapatean, bigarren gudate mundialeko filma eta komikiekin topo egin genuenean, samindura eta trixtura haundiz, gure lauburuak anaia gaizto bat zuela ikusi ahal izan genuen. Gure lauburu ederra erahiltzaile nazien sinboloa bihurturik, nola ote?. Ezin genuen ulertu, gure idealen ikurra, gure izakera eta askatasunaren sinboloa alemaniar nazien eskuetan eta banderetan, nola eta zergatik?.



Zorionez, laster bilatu genuen irtenbidea, bereizketa. Alemaniar naziena karratua zen bitartean gurea borobildua baitzen, eta beraienak ezkerretara begiratzen zuen bitartean gureak berriz, eskubietara. Eskerrak!

Handik aurrera bide hartatik abiatu ginen, gure lauburu borobildu guztiak eskubi alderantz orientatuz. Hala ere, zenbait hilobi eta etxetako lauburu karratuak eta ezker alderantzkoak ikusterakoan kezka eta zalantza pizten zitzaizkigun gure baitan, baina eroarena joz aurrera jarraitzen genuen gurearekin. Beraiek beraiena eta guk gurea, bai horixe!

1.- SVASTIKAREN ZABALKUNDEA.

Nahiz eta lauburu gure kulturaren elementu haundia izan, gaurko euskaldunok ondotoxo dakigu lauburu edo bere izen generikoaz ezagunagoa den svastika, ez dela bakarrik gurea, munduko lau haizetara zabaldurik dagoenez, gizateria osoarena baizik.


Europa, Asia eta Ameriketako zibilizazioetan ikus daiteke, baita India, Txina eta Tibetetik, Alemania, Euskal Herria eta Islandiaraino ere. Aztekindik grekoenganaino. Beraz, munduko mutur batetik beste muturreraino.

Kontutan hartu beharra daukagu svastikak oso tankera bereziak har ditzakela, hori bai mamizko izakera ondo gordez. Begira dezake alde batera edo bestera, eduki ditzake hiru, lau, sei, zortzi,... beso edo buru, nahiz eta gure artean lau burutakoa zabalduena izan; eta bere besoak izan daitezke edo karratuak edo borobilduak.


Svastika zaharrena Transilvanian aurkitu da eta dirudienez, harri landutakoan azken garaian egina omen da. Kristo aurreko XIV. mendeko zenbait arrastotan agertzen zaigu berriro, eta baita Ilioneko (Troia) aztarnen artean ere. Kristo aurreko IV. mendean Indiako kulturaren ikus daiteke, eta Txinan Kristo ondorengo V. mendean. Mende bat

beranduago, hots VI.enean, Japonian azaltzen da eta une hartan zabaltze garapenean dagoen budismoak bere ikurtzat hartzen du. Geroztik mundu guztian zehar zabaldurik ikusi ahal izan da. Grezian, Erromatar Inperioan, Germaniar Herrietan, Euskal Herrian, Britainian, Errusian, Tibeten, bikingoen artean, Ipar eta Ertamerikako indiar kulturetan,...

Geroztik, gure mendean, alemaniar nazismoak ario odolaren sinbolotzat hartu zuen, berarekin batera bere teoria arrazistak zabalduz. Bitxikeriaren gisa, aipatu beharra dago, 1.925. urtean, Panamako "kuna" indiarrek matxinatu zirenean goardia nazionalak akatuz eta beren lurretan "Tule" izeneko errepublika independentea sortuz, hondo laranjako ehunean egindako gurutze gamatua banderatzat hartu zutela.




Svastika oso zaharra da gure artean. Euskaldunok "lauburu" deitzen badiogu ere.



Gaur egun gehienbat erabiltzen dugun lauburu levogiro borobildua da, euskaldunok abertzaletasun ikurtzat hartzen baitugu.

kilometroak 88



IRUN - Urriak 2


Hauxe da, 1.988an Kilometroak izeneko jaian, Irungo Txingudi ikastolaren aldeko txarteletan erabili zen sinbologia, lauburu eta guzti.



Lezon ere erabilkera zabala ematen diogu svastikari. Hona hemen Lezoko kultura Batzordeak ikurtzat darabilen lauburu arkaiko bezain ederra.

2.- ALEMANIAR NAZIAK ETA GURUTZE GAMATUA.

Lehen esan dugunez, svastika edo gurutze gamatua mundu guztian zehar zabaldurik dago, baina lurralde semitikoetan, Egipton, Kaldean, Asirian, Fenizian, Palestinan,... ez da ia ezagutzen. Honetaz erreperaturik, Haushoffer ideologo alemaniarrek, svastika garai batean, aintzinatean, zabaldurik egon zen herri arioaren ikurra zela etera zuen ondorio, eta proposatu egin zuen herri alemaniarren entseina bezala.



Hiltterrek ondorio ezagutzen zuen svastikaren indarra. Hau dela eta naziek svastika levogiro karratua (gurutze gamatua) erabili zuten euren etsaien artean porrota eta ezkortasuna zabalitzeeko asmoz.

Aurretik, 1.891.ean, Ernest Krauss-ek gauza bera defendatu zuen, eta 1.908. urtean, Guido List-ek gurutze gamatua "Edda" izeneko epopeia runikotik ateratako ezagupen esoterikoan eta arioen odol gar-biaren sinboloa zela, argudiatu zuen.

Ikertzaile guztiek, svastikaren iluntasunetan sartzerakoan, "Thule" izen misterioitsuarekin egiten dute topo. Bai, kuriosoki askotan, svastika baten inguruan, "Thule", garai bateko bikingoen urrutiko herri ezezagunaren izen saindua azaltzen da, eta aurreko atalean ikusi dugun "kuna" panamar indiarren lekukoa dugu eredu.


Esan dezagun ere, Errusiako tzareen kor-tean, eta agian teosofoen eraginez, aspaldi sartua zegoela Alexandra Fero-dovna tzaresaren eskutik. Jakin, badakigu azken tzaresak, bere exekuzio aurretik, Ipatieven etxeko horma batetan svastika eta gutun misterio-tsua idatzi zuela. Soldaduek dena ezabatzeko agindu bortitza hartu arren, ba omen dago nonbait gorderik, aurretik ateratako argazkia, ekintza honen adierazgarri. Gutun honen inguruan azalduriko pertsona guztiak erahilik suertatu ziren, eta kasualitatez, hauetako baten itsasontziak, Otto Bautenas baroiarenak "Asgård" (irlandar ipuinetan Thuleri ematen zaion izen jatorra) izena zuen.

1.925. urtean, nazional-sozialismoa, Horbiger ideologoaren teorian oinarrituz, bere kideak erreklutatzen ari da. Garai hartan sinisten zutenez, duela 30 edo 40 mende Gobi basamortuan zibilizazio haundi eta aurreratua zegoen, hondamendi (agian atomikoa?) ikaragarri baten ondorioz gero desagertuko zena; Baina esaten zutenez, salbatu zirenak, Thor jainkoak gidaturik, Ipar Europako eta Kaukasoko lurraldeetarantz abiatu ziren, lur berrietan beste zibilizazio askoz txiroago eta atzeratuagoak berreraikiz. Horregatik, nazi ideologoak, sustraietarako itzulia predikatzen zutenean, Ekialdeko Europa, Turkestan, Pamir, Gobi eta Tibet konkistatzea aldarrikatzen zuten baita ere; Beren ustez, munduaren bihotz eta ardatza zen lurralde zabal hura menperatzen zuena munduko nagusia bihurtuko baitzen.

Hitlerren agintearen garain, Tibet eta alemaniarren arteko harremanak sendotu eta ugaritu egin ziren, eta tibetar lamategietara makina delegazio bidali egin zuten. 1.926. ean, Berlinen eta Munichen, hindu eta tibetar kolonia txikiak kokatu ziren, eta dirudienez, errusoak Berlinen sartzerakoan, alemaniar uniforme zuzenak jantzitako himalaiar arrazako mila bat gorpu aurkitu omen zuten.

Teoria naziak zioetenez, ariok mundu osoa konkistatuko zuten, svastikaren babesatik kanpo zeuden herri semitikoak eta bestelako bigarren mailako herri degeneratuak lurberatik ezabatuz, eta beraien arteko talde gorenak, hots Thule izenekoak, mundua menperatu eta zuzenduko zuten mila eta mila urtetan, hurrengo uholdea etorri arte.

Hauxe dena ikusirik, guztiz erraza egiten zaigu ulertzea II. gudatean gertaturikoa, eta gurutze gamatuak munduaren begien aurrean utziriko heriotzezko eta odollezko orimen deabrutsua.



Alemaniar nazi garaileak Paris konkistatu berrian desfileatzen. Svastika aidean garaipenaren seinale.

3.- SVASTIKAREN SINBOLOGIA MAGIKOA.

Bai European, bai Asian eta bai Ameriketean, svastika ikur magikotzat harturik izan da. Sinisten denez, berotasuna eta energiaren iturria, biziaren hazia,... sinbolizatzen duen eguzkia eta bere etengabeko mugimendua agertarazten digu. Erdigune batetik sortzen diren karratu edo borobil tankerako besoek (hiru, lau, sei, zortzi...), eguzkiaren berotasun eta energiaren etengabeko dantza, jira-biraka, adierazi nahi omen digute. Ikusten dugunez, svastika bi aldeetara jira daiteke. Ezkerretara mugitzen bada levogiroa deitzen zaio eta eskubitara begiratzen badu, berriz, destrogiroa. Eta ba omen dirudi, aurkako mugimendu bikoitz honetan hartzen duela svastikak bere sinbologiaren zama haundia.

Aintzinako gizaki naturistak, mundua, osotasuna, bi aldetan banatzen zuten, bata ezkorra, gaiztoa, itsusia, ankerra,... eta bestea, berriz, guztiz aurkakoa, hots baiezkorra, ederra, ona, goxoa, jatorra,..., eta bikotasun honen erdian oinarritzen zuten bere izate bera, bere bizia, eta baita bere inguruko izaki guztiena ere. Horrela, svastika destrogiroak baiezkortasuna adierazten digun bitartean, levogiroak, berriz, bere aurkakoa, hots ezezkortasuna.

Beste batzuek identifikatu egiten dute svastika suarekin eta trumoiarekin, germaniar mito-logian egiten den bezalaxe, baina bere barneko bikotasuna beti gordez eta agertaraziz. Alemaniar ideologo naziek, tibetar lamek bezala, ondo ezagutzen zuten svastika-ren sinbologia ezkutua eta horregatik bai lehenengoak eta bai bigarrenak baliatu izan dira bere esanahiaz eta bere marrazkeraz, beren asmoak eta gogoetak azalarazteko. Ez da kasualitatea, Errusiako frentea irekitzerakoan, Hitlerrek Kaukasoetako zenbait menditan, eskalatzailleen bitartez, gurutze gamatuaren entseina gorri-beltza jarraraztea, eta ez da kasualitatea ere, Tibeteko lamategietan garai onak edo txarrak adierazteko gurutze honi ematen dioten erabilkera grafikoa.

Euskal Herrian, nahiz eta sinbologia hau iadanik guztiz galdurik egon eta duen zama apaingarria ahaztu gabe, lauburu eta zortziburuaren erabilkera euskal nortasunaren baiez-tatze eta indartzearen prozesuan sar genezake. Gauza bera egin genezake Britainian hiruburuarekin, bere nortasun eta nazionalismoaren banderatzat harturik baitaukate.

Svastikaren bikotasunak antzeko haundiak ditu munduko hamaika bazterretan, esate baterako ekialdetarren "ying-yang" oinarritzko printzipioen ikur magikoa, edo erromatarren Jano jainkoa eta bere bi aurkako aurpegiak,... edo euskaldunon sinismenen artean guztiz aurkakorik diren jainkoen bikote ugariak: Mari eta Maju, Atarrabi eta Mikelats, Eki eta Ilazki,...

Dena den, svastikak bizi-bizirik irauten du edozein tokitan, hormetan, liburuetan, erai-kuntzetan, motibo apaingarrietan,... bere misterio gordea agerian utzi nahiko baligu bezala, bere magia esoterikoa beti present eduki nahiko balu bezala,... edo agian, bere besoen arteko loturagunean ezkutatzen duen mugagabeko indar ikaragarria berriro gure artera askatu eta zabaldu nahiko balu bezala. Auskalo!

Ingurugiroa6

JAIZKIBELGO SUTEAK



Azken urteotan ohikoa bihurtu da Jaizkibel urtean bizpahiru aldiz sutan ikustea. Ordu batzutako suteak izaten dira; kalteak, ordea, urtetakoak. Alegia, hainbat urtetako zuhaitzak erretzen dira.

Azken sutea aurtengo otsailaren 20an izan da. Sute hau ere propio eragindakoa izan da, eta eraso berri honetan 500 hektarea mendi erre dira (Jaizkibel osoak bi mila hektarea ditu). Erretako hektarea horietatik 80 inguru basoa zen. Erdia, orain sei-zazpi urte birlandatutakoa (pinua, gaztaina, urkia ...) eta beste erdia, 20-30 urteko zuhaitz sendoak, 88ko eta 89ko sute haundietan salbatu zirenak.

Oraingoan ere ez dago zalantzarik: mendiari su eman diote. Lau tokitan piztu dute sua; lehenengoa, goizaldeko hirurak aldera Gaintxurizketa parean, eta beste hirurak, goizeko zazpiak aldera kostaldean. Benetako sarraski ekologikoa. Foru Aldundiko mendi arduradunek esan dutenez, hainbat tokitan 50 urte beharko dira erretako zuhaitzen modukoak ikusi ahal izateko.

Hona hemen Jaizkibelek azken urteotan pairatu behar izan dituen erasoak. Foru Aldundiak emandako datuak dira.

URTEA	ZENBAT SUTE	ERRETAKO HEKTAREA ZUHAIZTUNAK	ERRETAKO HEKTAREA ZUHAIZGABEAK	ERRETAKO HEKTAREAK DENERA
1973	6	34	10,6	44,6
1976	3	9,5	2,5	12
1977	5	53,4	274	327,4
1978	7	9	11,2	20,2
1979	3	2	7,2	9,2
1980	2	20	7	27
1983	11	15,3	54	69,3
1984	14	78	384,3	462,3
1985	11	5,3	27,45	32,75
1986	4	1,75	41,75	43,5
1987	4	1,2	69,3	70,5
1988	6	6,4	4	10,4
1989	6	1.343,71	2,9	1.346,61
1990	2	34	36	70
1991	2	3	3	6
1992	3	7	21	28
1993	5	60	46,5	106,5
1996	2	0	1,1	1,1
1997	5	29,9	113,7	143,6

Datuak berez dira adirazgarriak. Nola nahi ere, zera ikus daiteke: azken 25 urteetan 1½ sute izan direla Jaizkibelen. Urte horietan ia-ia urtero izan da suteren bat. Eta 25 urte horietan Jaizkibel terdi erre da: 3331 hektarea; erdia baino gehiago zuhaiztia.

Zenbakiak zenbaitetan hotzegiak izaten dira eta ez dute behar bezala azaltzen erre-
litatearen islada. Beste era batera esanda, azken 25 urteotan Jaizkibelen, Lezo osoa-
ren azalera ia lau aldiz erre da; lau Lezo oso erre dituzte.

Noiz arte horrela?

JOXE JUAN UGALDE ORDOKI
Argazkia: I. Pikabea

Ingurugiroa6

(1997-4-21 • 1998-4-4)

ETENGABEKO BORROKAN

1997ko apirilaren 21a: Herri Ekimenak eta Lezoko Udalak "Paralización Cautelar" delakoa eskatu dute epaitegian.

1997ko apirilaren 29a: Gipuzkoako juntetxean prentsaurrekoa eskeini dugu, obrak gelditzeko eskaeraren arrazoiak argitu eta autobien inguruan ematen ari diren ilegalitateak salatzen.

1997ko maiatzaren 1a: Lezoko Herri Olinpiaden egitarau barruan Ibilaldi Neurtua egin da autobiek dagoeneko txikitutako bazterak zeharkatuz.

1997 maiatzaren 10a: Herri Olinpiadetako Goitibera jeitsiera ondoren, gazte talde bat obretan sartzen da "GELDITU-PARALIZACIÓN" pankarta bat zabalduz.



1997ko maiatzaren 11a:

Herri Urratsera zihozten hamar neska mutil katxeatuak izan dira Altamiran goizeko 7etan. Ertzantza eta Garda enpresako zinpekoek, irainak, kolpeak eta mehatxuak bota dizkiete.



1997ko maiatzaren 15a: Lezoko jaiak. Altamirako parkearen txikizioa salatzen hainbat pertsona bainujantziz makina aurrean etzan dira. Kalejiran 20 pertsona inguruk parte hartu dute trikitixa eta guzti.

1997ko maiatzaren 21a:

Herri Ekimenak mozio bat sartzen du Lezoko Udaletxean obrak gelditzeko eskatuz.

1997ko maiatzaren 25a:

Lezo eta Oiartzungo alkateek Irizar diputatuari obrak gelditzeko eskatzen diote.

1997ko maiatzaren 30a:

Altamirako parkean 10 pertsonak lanean ari zen makina geldiarazi dute. Ertzantza etorri da eta banan bana identifikarazi dituzte.

1 1997ko ekainaren 3a:

Herri Ekimeneko kide batzuk Altamirako auzo elkarteko teilatu gainera igotzen dira obrak geldituz.

1997ko ekainaren 4a:

Altamiran konzentrazioa egin da obretako zuzendari eta teknikarien aurrean. Bigarren eguna teilatu gainean.

1997ko ekainaren 5a:


Hirugarren eguna auzo elkarteko teilatu gainean. Gaua eta egunak irauteko txandak osatu dira. Udalaren pasibitatea salatzen zenbait bizilagunek obretako harriak hartu eta udaletxe aurrera eramanez dituzte. Altamiran obrak erabat gelditu dira.

1997ko ekainaren 9a:

Herri Ekimenak prentsaurrekoa eskeintzen du teilatu gainean protestaren zergatiak azaltzeko. Autobia txikitzailea da eta gainera ilegala.

1997ko ekainaren 11a:

Bederatzigarren eguna teilatuan. Herri Asanblada egin da Altamiran eta ondoren 30 pertsona inguru Lezoko udal plenora jeitsi dira udalaren jarrera salatzen.



1997ko ekainaren 12a:

Ertzantzak auzo elkartea hustutzeko aginda ekarri du. Egun berean Herri Ekimenak, epaitegian, Foru Aldundiaren aurkako salaketa jarri du parke munizipalean obrarekin ari direlako. Eguerdian 70 pertsona elkartu gara asanbladan eta iluntzean ehundik gora.




1997ko ekainaren 16a:

Goizeko bederatzietan ertzantzak auzo elkartea hustutzen du eta teiltuan dauden 7 kideak ezin dituzte jetsi nahiz eta ertzantzaren eskalatzaille taldekoak eta hainbat grua ekarri.



1997ko ekainaren 17a:

Teiltatu gainean hamabostgarren eguna. Goizeko 7etan ertzantzaren operazio berria hasten da. Eskalatzailleak, Foru Aldundiko grua kamioi baten laguntzaz eta ertzain ugariz inguratuz, teiltatu gaineko bost kideak jeitsi eta identifikatu dituzte. Auzo elkartea botatzeko makina bat ekarri dute. Jende asko lurrean etzan da makina aurrean, ertzantzak banan bana kendu harte. Eguerdiko ordubatean desalojoaren aurka enkartelada egin da Altamirako errotondan. Autobia inposaketa da. Lezotik Altamirara manifestazioa egin da "Txikizioa ez da negoziatzen" lemapean. 200 pertsonak parte hartu dute ertzantzaren kontrol izugarriaren aurrean.



1997ko ekainaren 23a:

San Juan gaua dela eta Altamirako bizilagunek eta Herri Ekimenak jaia antolatu dute auzoan. Sua, dantza, sardinak eta auzo elkarteko desalojoaren emanaldia.

Epaileak udalaren "paralizacio cauter" delakoaren paperak galdu ditu.

1997ko ekainaren 29a:

Eguzkik antolatuta mendi martxa obretara. Ertzantza ibiltariak kontrolatzen aritu da.

1997ko uztailaren 8a:

Autobia ilegala da itsas bazterrak zeharkatzen bait ditu. Herri Ekimenaren protesta autobioako zutabeetan burutzen da, kaiaren eremuan dagoen obra zatian.

1997ko uztailaren 15a:

Epaileak ezezko erantzuna eman dio Herri Ekimenak obrak gelditzeko egingadako eskaerari.

1997ko uztailaren 18a:


Presoak Euskal Herriratzearen aldeko Abialdian parte hartu dugu Lezotik Oretetara, "autobiarik ez" banderak eramanez.

1997ko uztailaren 21a:

Oretetako jaiak. "Desarrollismo txikitzaileari aurre egin" pankarta jarri dugu Udaletxe ondoan. Ertzantza etorri da eta bi kide identifikarazi ditu.

1997ko uztailaren 23a:

Herri Ekimenak beste mozio bat aurkeztu du Lezoko udaletxean, auzitegian "akusazio partikular" gisa aurkeztu dadin.



1997ko uztailaren 27a.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpada lurretan. Lezoko autobioaren aurkako borrokaren berri eman dugu.

1997ko uztailaren 29a:

Altamirako tunelaren zulaketan kobazulo bat agertu da eta enpresa eraikitzaileak ixkutatzen saiatu dira. Herri Ekimeneko hainbat kide kobazuloa ikustera hurbildu dira. Ertzantza eta zinpekoek mehatxuak bota dituzte eta bi pertsona identifikarazi.



1997ko abuztuaren 4a:

Lezoko udalak, alkatearen dekretuz, Foru Aldundiaren auzian "akusazio partikular" gisa aurkeztea erabakitzen du.



1997ko abuztuaren 8a:

Altamirako obretan protesta berria. Pertsona batzuk mendi mozketatik zintzilikatu dira "STOP" pankarta erraldoi bat zabalduz. Beste batzuk "kobazuloa ez ikutu" pankarta zabaldu dute kobazulo ondoan.

1997ko abuztuaren 25a:

Basoaren defentsan protesta berria. Goizeko 7'30etan Herri Ekimeneko hainbat kide bota nahi dituzten aritz heldu batzuetara igotzen dira. Egun berean, autobiak suntsituko dituen baso eta zuahiztiak salatzeako prentsaurrekoa ospatzen da basotik gertu. Eguerdian asanblada egin da. Ertzantzak inguruko pankartak kendu ditu eta bi gazte identifikarazi.



Arratsaldeko 8,30etan Intxaurren egin berri duten Garbera Hipermerkatuaren inagurazioan, honen aurkako protestan parte hartu dugu. "Eroski txikitzailea, lanpostu eta komertzio gutxiago, langabezia, trafikoa, kutsadura eta kontsumo gehiago", "bizi kalitate?" pankartak zabalduz.



1997ko abuztuaren 26a:

Bigarren eguna zuhaitzen gainean. Gaur goizean makinak basoa txikitzen hasi dira manifestarien zuhaitzetaraino iritsiz. Makinak gehiegi hurbildu dira zuhaitzen gainean zeudenen bizitza arriskuan jarriaz) Eguerdirako makinak geldirik daude. Ertzantzak hamabost pertsona identifikarazi ditu.

1997ko abuztuaren 27a:

Goizeko 7etan ertzantzak bota nahi duten basoa inguratu du eta hirugarren txanda zuhaitzetara igotzea oztopatu. Protesta moduan eguerdian enkartelada bat egin da Altamirako errotondan "TXIKIZIOA GELDITU".

Ertzantzaren bijilantzipean makinak basoan sartu dira harrapatutako guztia txikituz: "aritzak, zumarrak, urritzak, sasi arkaziak, lizarrak, haltzak, urkiak e.a...".


1997ko abuztuaren 29a:

Herri Ekimenak Zumaiako kirol portuaren aurkako protestan parte hartzen du, horretarako paduran jarri duten balsa batean gau eta egun bateko txanda eginaz.

1997ko irailaren 11 a:

Arantzadi Zientzi Elkarteak kobazuloari buruzko txostena kaleratzen du. Kobazuloa dagoeneko egoera penagarrian dagoela azpimarratzeaz gain, beraiek aztertutakoan garrantzi haundirik duen aztarnarik ez daudela jakinerazten dute.

Kobazuloan hamazazpi kamioi hormigoiz bota dituzte erabat estaliz.



1 997ko irailaren 12a:

Lezoko jaietan "Txikizioaren aurkako parodia-PERFORMANCE" antolatzen da. Alkatea parodia galerazten saiatu da.

997ko irailaren 16a:

Lezoko udaldk plenoaren erabakiaz autobiaaren aurkako auzian "akusazio partikularra" izateari uko egiten dio.

1997ko urriaren 5a:

Kilometroak Lezon. Autobiaaren aurkako pankartak eta banderak Irizar diputatuaren aurrean.

1997ko urriaren 17a:

Herri Ekimeneko bost kideren aurkako epaiketaren lehen saiakera.


1 997ko azaroaren 4a:

Lezo eta Orereta arteko bidegurutzean "KONZENTRAZIO-PROTESTA" n 50 pertsona inguru elkartu dira. Bi pertsona ordubetez lurperatuta egon dira eta gurutze txuri ugari jarri dira: "Errotonda ala hilerria?" Ertzantzak protestan parte hartzen ari diren bost gazte erretenitu eta identifikarazi ditu.

Bidegurutzetik Lezoko plazara enkartelada egin da. Plazan herriko alkate eta zinegotziekin hitzegi nahi izan da, udalak ez bait dio prokuradoreari ordaindu nahi "conteciosoan" jarraitzeko. Alkatearen ezezkoaren aurrean, protesta egin dute bertan bildutakoek, alkateari taberna batetara jarraituz eta "Irizarrekin bai, gurekin ez" "Herriari iruzurrik ez" eta antzeko ohiuak boteaz.

1997ko azaroaren 28a:

Herri Ekimeneko bost kideren aurkako epaiketa bigarren aldiz bertan behera gelditu da akusatutako bat ez bait dute lokalizatzen. Donostiako epaitegi aurrean ehun pertsona inguru bildu dira "Au-



tobia da ilegalá" eta "Aski da, txikizioa gelditu" pankartekin. Arratsaldean hogei pertsona inguru Altamirako obretan sartu dira batzuk obretako sarrera itxiaz eta besteak tunelean sartuz. Ordu bete pasa ondoren Altamiratik Lezora enkartelada egin da.

1997ko abenduaren 1a:

Senideak-ek antolatutako martxan parte hartu dugu, autobiaaren aurkako ikurak eramanez.

1997ko abenduaren 27a:

Oinezkoen aldeko protesta; Lezo eta Orereta artean. Autobiaaren obrak oinezkoen egoera izugarri txartu da eta oinez ibiltzea arriskutsua bilakatu dute. Herri Ekimeneko kideek oinezkoentzat bide bat egokitu dute zenbait metalezko baila kenduz. Ertzantzaren 9 auto etorri dira eta protestan parte hartzen zuten guztiak identifikarazi eta erretenitu zituzten.

1997ko abenduaren 28a:

Inoxente eguna dela eta Herri Ekimenak gezurrezko bando bat kaleratzen du, autobia eta progresoa dela eta zergak lgoko direla aipatuz. Ordu bete beranduago, Lezoko Udaltzainek bando guztiak kendu dituzte etxezetxe.

1998ko urtarrilaren 10a:

Desarrollismo txikitzailearen aurka, 50 pertsona inguru bildu dira Altamiran autobia obren sarreran. Bederatzi pertsona bertan kateatu dira. "Txikizioaren aurka Desobedentzia" "Lurra S.O.S". Ertzantza ordu batera azaldu da. Kateak moztu eta bederatzi pertsona identifikaraziz.



1998ko urtarrilak 20a:

Lezoko Arau Subsidiarioei buruzko txar-la-eztabaida. Herri Ekimenak alegazioak aurkeztu ditu bai arauak onartzeko prozedurari eta baita etorkizuneko Lezori buruz.

1998ko urtarrilaren 31a:

Autobiaren obrak direla medio zarata izugarri handitu da. Zarata kutsadura ere kaltegarria da. Guzti hau salatzeko kalejira-zaratatsua egin da Lezo eta Orereta arteko mugan ordubetez.



1998ko otsailaren 1a:

Autobiaren obrak direla eta, Oreretako olibet auzoan gas odi bat hautsi zuten. Leherketa arriskuak bizilagunen bizitza arriskuan jarri zuen. Emerjenzia plana martxan jarri zuten.



1998ko otsailaren 2a:

Herri Ekimeneko bost kideren aurkako epaiketa Donostian. Fiskalak ez du akusaziorik jarri nahi eta Diputazioko Antton Jaimek ertzantzari pasa den urtean Altamirako auzo elkartea hustutzeko eman zion aginduaren zilegitasuna zalantzan jartzen du. Bost kideak "agintarien aginduei uko egitea" leporatzen zieten baina, epaileak "eremu hori parkea eta udalarena" dela aipatuz libre uzten ditu inongo zigorrik gabe, epaileari 200 autointulpazio eman zaizkio. Epaitegian ehun pertsona inguru bildu dira eta ondoren Diputazioko erregistro gela eta sarrera okupatu dituzte bost minutuz.



1998ko otsailaren 14a:

Zuhaitz landaketa Altamiran. Herriko hainbat elkartek 49 zuhaitz landatzen dituzte, 1997an lezon jaiotako haur bakoitzeko bat.

1998ko otsailaren 28a:



Azpiegituren aurkako mendi martxa obretan zehar. 2. Fasea, A.H.T, 2. Gerrikoa, Baiona-Donostia konurbazioari buruzko informazioa zabaldu da. Ertzantzak ibiltariak kontrolatu ditu martxa guztian. Arratsaldean Donostian "Solidarioen aldeko" mánifan parte hartu da.

1998ko martxoaren 1a:

Parke eollikoaren aurkako mendi martxa Leitzan. Lezotik autobusa atera da.

1998ko martxoaren 3a:

Ehun oinezko baino gehiagok salaketa jarri dute errepide zuzendaria den Antton Jaimereren aurka.

1998ko martxoaren 9a:

Itoitzeko kableak mozteagatik. "Solidarioen" aurkako epaiketaren aurkako protesta egin da Donostiako kursaleko obretako gruetara igoaz.

1998ko martxoak 10a:

Solidarioen alde, Herri Ekimenak pankarta bat jartzen du autobioako bialduktuan, "Itoitz, autobiak, A.H.T, desarrollismoari STOP".

1998ko martxoaren 14a:



Iruñean Solidarioen aldeko manifestazioan parte hartzen dugu. Lezotik autobusa atera da.


1998ko apirilaren 4a:

Altamirako parkean obrak gelditu dira ordubeteko protestan. Prentsaurrekoan proiektuari aurre egiteko dauden arrazoi ugari gogoratzeaz gain, justiziarik gogor salatu zaio. Izan ere lege hausteak onartu eta ez bait dituzte obrak gelditu.



“JON ETA LORENA LEZOARREN USTEGABEKO BIZIKERAK”

Urteak laster igarotzen direnez, Lorena ez zen Euskal Herriaz ongi gogoratzen. Bazeukan gogo, Jon Isasti, bere senar maitea, berriz ikustekoa, baina Jon oso urruti zegoen, urrutiegi. Hamasei urte igaro ziren Lorena Gartzia bahitua izan zenetik. Eta nolako hamasei urteak gainera. Gogoetak bortizki hasi ziren Lorenaren burutikan pasatzen. Bere ezkontze egunaz oroitu zen, baita Lapurdiberrira egindako ezkon-bidaiaz ere. Lapurdiberri euskaldunek ortze zabalean zituzten sei kolonietatik ederrena eta ospetsuena zen, eta garai hartan bere landaretza trinko eta lizuna zela eta modan zegoenez, Jon Isastik eta Lorena Gartziak harunzko ezkon-bidaia prestatu zuten.



Zazpirehun biloi argikilometro, untzi ezezagunak hurbildu zitzaizkien. Ortzeko bikingo ikaragarriak ziren!

Hortarako Baionako ortzeportura abiatu ziren eta “XY-6 Izartxo” izeneko etxearen ortzeuntzi baterako txartelak erosi zituzten. Bidaia ondo hasi bazen ere, ez zen ongi bukatu. Zazpirehun biloi argikilometro eginda zituztenean ortzeuntzi ezezagun batzuk hurbildu zitzaizkien. Euren mutur zorrotzetan, borobil gorri baten barruan zegoen buruhezur zuria ikus zitekeen. Ortze zabaleko bikingo bildurgarrien gudauntziak ziren! Gure untzia ez zegoen gudarako prestaturik, eta ez zuen arma egokirik inolako defentsa antola ahal izateko. Ez zuten inolako armarik, tripulazioko marinelek zermazkiten izpigailu txiro eta apalak izan ezik. Bikingoek euren izpikainoien bidez, gure untziko ate zabalak ireki zituzten, eta berehalaxe barruratu zitzaizkigun.

Lorenak eskuak burura eramane zituen, bere gogoetatik alde egin nahiko balu bezala. Bai orduan gertatutakoa bizi bizirik zegoen Lorenaren buruan, eta orduko ondorioak biziagoak oraindik. Ortzeko bikingoek izugarrizko sarraskia egin zuten tripulazioko

artean, eta bidaiariak preso eraman zituzten, euren izarbelan esklabu gisa saltzeko asmoz. Bikingoen izarbela ezkutua zen Norwerrira iritsi bezain pronto, gizonezkoak alde batean ipini zituzten eta emakumezkoak beste aldean. Geroxeago Artojena izarbelako jauntxo batek Lorena erosi egin zuen eta berarekin batera bere harenera eraman. Ordutik gaur arte hamasei urte luze igaro dira, itxaropenik gabeko hamasei urte mingots eta luze. Non ote bere senarra, Jon Isasti? nola ote Lezo, bere herria? eta nola ote Euskal Herria?

Orain, Lorena bere nagusiaren untzi partikular batean dago. Lorenak ez daki zein alderantz doazen, eta egia esan bost axola berari, Bertago duen leihotik izar urrunak ikus ditzake, Berarekin batera eta untziko harenean, bete bost neska doaz. Bostak euren nagusia zen Erik Thomsonen harenekoak ziren. Lorenaren gogoetak laster itzali ziren ametsei segida emateko, logurak bere erresuma ilunera eraman baitzuen. Bere gorputza lotan zegoen, ohe gainean etzanda, baita bere burua ere,.. Erik Thomson jauntxoaren untzia habaila ikaragarrian zihoan ortze zabalean zehar. Bere erradarrak azaltzen zuenez, Lurreko Federakuntzaren mugak zeharkatzen ari ziren.



Zazpi mugazain sartu ziren Erik Thomson-en untziko bazter guztiak mihatzeke asmotan. Kontrabandoa hilatzen pmen zuten.

Bapatean, ortzeuntzia geldirik gertatu zen. Bere ondoan gudauntzi bat zegoen eta berak bidalitako izpi boteretsu batek Eriken untzia geldierazi egin zuen. Federakuntzako mugazainak ziren eta Eriken untzia mihatu nahi zuten, kontrabandoaren errezeloz baitzeuden. Zazpi mugazain sartu ziren Eriken untziko bazter guztiak mihatzeke asmotan. Berehala ate zabal baten aurrean aurkitu ziren.

mugazainburuak Zer duzu hemen barruan ? • galdetu zion Erik Thomsoni

Erik Thomson-ek. Ez dago deus, nire untziko harena, ez besterik!
Beti daramat nirekin!


mugazainburuak. Ez al dakizu Lurreko Federakuntzaren barruan haren guztiak debekaturik daudela? Ireki ezazu ate hori! • agindu zion irmoki •

Erik Thomson-ek. Baina zer diozu? Ari zara ortze zabaleko arauak hausten. Nahi al dituzu paperak ikusi? dena ondo daukat eta!

mugazainburuak. Ez paperik eta ez deus ere. Ez dut ikusi nahi. Bi urte dira gure eremu osoan harenak galerazirik daudela. Ireki ate hori, eta bizkor! - erre pikatu zion bere armaz burura apuntatzen zuen bitartean-.

Erikek atea ireki zuenean, mugazainak barrura sartu ziren. Barruan zeuden neskek esnatuta zeuden eta Federakuntzako mugazainengana hurbildu ziren esanaz: "Aska gaitzazue zerripuska hoiengandik mesesdez, besterik ez baitizuegu eskatzen!" Halako batean, mugazainburuak horietako neska bat ezagutu zuen:

mugazainburuak. Zu al zara? Zu al zara Lorena Gartzia lezoarra? Ez al nauzu ezagutzen? Jon naiz, Jon Isasti, zure senarra nauzu! Norwerritik alde egitea lortu nuen eta ordutik hona zure bila ibili naiz, zu aurkitzeko itxaropenaz, mugazaina sartu nintzen, eta azkenean aurkitu zaitut Lorena.



Ixtorio honi bere amaiera iritsi zaio. Jon Isasti eta Lorena Gartzia Euskal Herrian daude, eta iparhaizea urratuz beren otoitz ixilak adi daitezke.

Lorenak ezin zuen sinistu bere begiek esaten ziotena, baina azkenean guztiz errealia zela onartu egin behar izan zuen. Senaremazteek, emozioz gainezka, elkar besarkatu zuten behin eta berriro. Bion ezpainenatik hamaiika musu goxo atera ziren. Hamasei urte luze eta mingots igaro ondoren emandako lehenengo maitasunezko musuak. Gaur, ixtorio honi bere amaiera iritsi zaio. Aurreko gertakizunetatik hamabost egun igaro dira. Jon Isasti eta Lorena Gartzia lezorrak Euskal Herrian daude, Gernikako Arbolararen aurrean, zehazkiago esana. Biak besotik helduta daude eta euren masailetatik zorionezko mallok zirriztratzen zaizkie. Giro ederra dago, eta ez da deus entzuten, iparhaizearen doinu xarmangarria izan ezik, eta zenbaitetan, Jon eta Lorenaren otoitz ixilak, besterik ez!

Euskal Herria, 3.217ko maiatzak -

11.-

ZABARREKO

7 Literatura

GURE JAIZKIBEL



"GURE JAIZKIBEL"

I PUTREKABIYA-AZPIYA

Burkaitzaren gainetik
zapelatza agertu da
hegalak zabal-zabal
eta begiak dizdizka;
tupustean,
tximistak bezala
ortzi-lurrak urratuz,
ainardiko erbinudeari
bihotza lehertu dio.

II SANTABARBARA

Ilargi betearen irudira
lerrotutako harrespil zaharra
ahantzuraren eremuetan datza;
arbasoen errautsen artetik,
ordea,
indarrean dator bizia,
urki zuri gaztea.

III ARTOLA

Harpeko artzain-bordatik
otsoa ihesi doa
bee ilunen artean,
herio-dantza zoroan
odol beroz
horditu ostean,
otadiko
geriza ezkutura.

IV TALAIA

Lur urrunetatik
kulunka heldu da untzia,
ur azpiko amildegiak oro
gibelean utzita.

V
ABANZADAKO-GAÑA

Antzinako borrokaldien
oihartzuna ahituta,
haize-boladen pean dago
dorrei garaitezina,
horma belztuez
eutsi ezinik
denbora-gurpilaren
ibili etengabeari.

VI
LORBIDE

Azken itzainaren
orga dantzut
oihanean,
zurezko gurpilen
ardatza auhenka,
arima herratu
baten antzera.

VII
BASOTXIKI

Ekaitz ahantziak
bortizki zehatutako
itsasuntzia
arroken artean datza
egun eta betiko,
eremu urdineko
uhin irristakorren
minez.

LANDER ZURUTUZA

HAUR ETA GAZTETXOEN LITERATUR LEHIAKETA 1997

Lezoko Udal Liburutegiak haur eta gaztetxoentzat antolatutako literatur lehiaketako azken ediziora 170 idazlan aurkeztu ziren: 17 olerki (6-8 urte/11, 12-14 urte/6), eta 153 ipuin (6-8 urte/76, 9-11 urte/72, 12-14 urte/5).

Ondoren, irabazleen zerrenda duzu, eta saritutako lanak.

"IV. JON GARBIZU OLERKI SARIAK" (1997)

- (6-8 urte) **Ainhoa Cervera Uranga**: "Olerkiak". *
- (9-11 urte) **EZ ZEN LANIK AURKEZTU**.
- (12-14 urte) **Xabier Dorronsoro Amiano**: "Oilagorra".

"IV. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK" (1997)

- (6-8 urte) **Asier Erkizia Baquero**: "Baserritarra eta mutil bihurria".
- (9-11 urte) **Belai Irazabal Iburguren**: "Espaziountziak Jaizkibelen".
- (12-14 urte) **Kristina Flores Puga**: "Neska bat arriskuan".

“IV. JON GARBIZU OLERKI SARIA 1.997”



AINHOA CERVERA
URANGA

OLERKIAK

Hor hor hor
hor dator Aitor.

Dilin dilin dilin
Aitor hor dabil.

Lore polita
lore apaina

zelaian zaude
tente jarrita.

Tua tua tua
hor dago katua.

Ria ria ria
etorri da Maria.

Roa roa roa
hor dago Naroa.

Ne ne ne
hor dator Nekane.

Ne ne ne
etorri da Jone.

Aska aska aska
polita da Alaska.

Ane ane ane
ikusi dut Aintzane.

Dolon dolon dolon
gizona hor konpon.



XABIER DORRONSORO
AMIANO

OILAGORRA

Moko luzea
begi adiak
inguratzen dute buru zeharo
argia.

Ikusmen ona
hainbat hobea adimena
horregaitik zara denetan lehena.

Gaueko txori
zara ortzian ageri
ilunpeko ibiltari.

Zakurra aurrean
prestatzen duzu ihesa
ote eta iratze artean.

Ehiztariak jarraika
hala ere
eskapada ederrak emanaz aldiz-
ka.

Edertasunaren ama
politena zara
basoetako dama.

BASERRITARRA ETA MUTIL BIHURRIA



ASIER ERKIZIA BAQUERO

Herriska txiki batean mutil bihurri eta oso ausarta bat bizi zen.

Egun batean baserri baten ondotik pasa eta bere buruari galdetu zion: behi honi errapea jaisten badiot? Eta hiru aldiz pentsatu gabe behiarengana joan eta behia jaisten hasi zen.

Hurrengo egunean behiarengana joan eta berriro ere jaisten hasi zen, bainan orduan baserritarra konturatu egin zen, eta hurrengo egunean han zegoen itxoiten.

Azkenean agertu zen mutila eta baserritarrak esan zion:

- Berriro egiten baduzu, zure amari esango diot.

- Barkatu jauna, ez dut gehiago egingo, agintzen dizut.

Eta horrela lagun minak egin ziren.

ESPAZIOUNTZIAK JAIZKIBELEN



BELAI IRAZABAL
IBARGUREN

Orain dela urte asko bazen Martin izeneko lezotar bat, asko gustatzen zitzaion mendira joatea. Martin astean behin joaten zen mendira bere emaztearekin. Honi ere asko gustatzen zitzaion mendira joatea, baina noizean behin hondartzara joaten zen.

Hurrengo egunean Martin bakarrik joan zen Jaizkibelera perretxikoak biltzera. Etxeratzerakoan zerbait harri-garria ikusi zuen. Gauza hori gero eta beherago zegoen. Azkenean espaziountzi bat zela ohartu zen, eta tximista baino azkarrago joan zen herrira. Biztanle guztiei abisatu zien. Alkateak manifestazio bat egiteko agindu zuen, eta hala egin zuten. Hiru ordu pasa ondoren espaziountziak joan egin ziren beraien planetara.

Handik aurrera oso pozik bizi izan ziren lezotarrak.

"Egia baldin bada
sakelan sar,
gezurra bada
ez dadila atera".

NESKA BAT ARRISKUAN



KRISTINA FLORES PUGA

Behin batean bazen hamabi urteko gaztetxo bat, Alazne izena zuen eta bere familiarekin bizi zen Lezoko auzo batean. Anaia bat zuen, Asier izenekoa eta hamabost urte zituen. Bere gurasoak Ekiñe eta Patxi ziren, biak hogeita hamazortzi urtekoak eta oso atseginak. Alaznek, marroi argi kolorekoa zuen ilea, zuhaitzen enborren antzera, eta gehiengotan zinta batez eramaten zuen aurpegitik apartatuta. Begiak, berriz, urdin-urdinak zituen, beraiei begiratu eta itsasoa ikusten zenuela ematen zuen.

Udako egun eguzkitsu batean, bere lagunekin Donostiako Groseko hondartzara joan zen. Ez zen, joaten zen lehenengo aldia, baina egun hartan, zerbait berezia gertatu zen. Hondartzarantz abiatzen zirenean autobusak geltokian utzi ondoren, hondartzako banderitatxoa berdea egon beharrean horia

zegoela ikusi zuten, eta Alazne harrিতuta geratu zen, baina ez zion garrantzirik eman eta aurrera jarraitu zuten. Oso gustura zebiltzan eta batzuek uretara sartzea erabaki zuten, beste batzuk, berriz, hondarretan gelditu ziren.

Groseko hondartzan betidanik zeuden olatu handiak baina neskatoak gustura zebiltzanez, hori ez zuten oso kontutan hartzen. Hasieran Alazne, Ainhoa izeneko lagun batekin jolasten ari zen eta, bapatean, lurra ikutzen ez zuela konturatu zen. Orduan Ainhoari deitzen hasi zen:

- Ainhoa! Laguniezadazu mesedez, banoala itsasorantz!

Baina Ainhoak ez zion kasurik egiten, brometan ari zela uste bait zuen. Alazneren oihuak gero eta handiagoak ziren:

- Ainhoa, mesedez, lagundu! Egiatan ari naizela!

Orduan konturatu zen Alaznek egia esaten zuela, berak ere lurrik ikutzen ez zuela ikusi zuenean, eta eskutik heltzeko ahalegin guztiak egin ondoren, lortu zuen biek elkartzea.

Baina olatuak gero eta handiagoak zirenez, momentu batean bat etorri eta neskatoen eskuak banandu zituen. Orduan, Alaznek oso-oso gaizki pasa zuen hondarretara joan ezin zelako, eta ura tragatzen hasi zen. Benetan mareatzen hasita zenean, bera baino À errazago atera ziren lagunek deitutako sokorrista hurbiltzen zitzaiola ikusi zuen. Ikaragarritzko lasaitasuna eman zion Alazneri gizon hark, bere esku indartsuekin besotik heltzen ziola nabaritu zuenean.

Ondoren, ertzeraino eraman zuen, eta erdi zorabiatuta Ainhoa ateratzera itxaron zuen, surfista batek atera baitzuen. Eta gero toaillara ahal izan zuen bezala iritsi zen. Sano eta salbo zegoen, baina egun horretan gertatutakoa, ez zuen erraz ahaztuko.

